

An abstract painting with a vibrant, expressive style. The composition is dominated by bold, thick brushstrokes in a variety of colors including yellow, green, blue, red, and black. The background is a mix of warm tones like orange and yellow, with cooler tones like green and blue. The overall effect is one of dynamic energy and emotional intensity.

uk

72. zenbakia / 2004 abenduak 5



hablaron cristiano

erakusketa

TOKIA
Torrene kalea,3
Lehengo BSKren bulegoa
GETXO

EGUNAK
2004ko abenduaren Itetik 19ra.

Ordutegia
Lanegunetan: 9:30-13:30
17:00-20:00

Jai egunetan: 11:00-14:00
17:00-20:00

Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. Galdutako oinetakoak. Asier Mentxaka.
- 6. PLAZA. Leihatila, Josu Esnaola. Euskararen eguna, Joseba Butron.
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Arrigunaga.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
- 23. AGENDA.

SAKONEAN

- 24. ALBUMA. Ur biltegiak. Asier Mentxaka.
- 26. ERREPORTAJEA. Alkohola gurean. Unai Brea.
- 28. ARGAZKIA. Garabia Erandion. Asier Mentxaka.
- 30. BERBETAN. Jose Luis Zumeta. U. B.
- 34. FOTOGRAFIA. Erandioztarrak 1890-1990.

KULTURA ETA AISIA

- 40. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea. Euskarazko filmak.
- 41. MUSIKA. Datozen disko berriak. Diskoen erresinak.
- 42. LIBURUAK. Durangoko azoka eta Esti Ezkerraren zutabea.
- 43. KOMUNIKAZIOA. Euskararen berripapera.
- 44. SAREAN. Internet, Iker Merchanen eskutik.
- 45. ELKARRIZKETA. Ane Gabarain. Unai Brea.

EUSKARAZ

- 46. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Urtzi Iglesiasen eskutik. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.

AMAITZEKO

- 48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardoaren gaineko lezioa. Non jan? Algortako La landa jatexean.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. San Nikolas ikastola, 1972.
- 54. AITORMENAK. Anne Igarteburu. Jon Urresti.

Azaleko argazkia: Asier Mentxaka (Zumetaren pintura)



30 Jose Luis Zumeta



34 Erandioko irudi zaharrak

Berbetan

Usurbilgo margolari handiak erakusketa ederra ipini du Erandioko merkatuan. Beragaz egon ginen.




24 Albuma



54 Anne Igarteburu



12 Ana Iri



45 Ane Gabarain



Scras Julia Learra

JANTZIAK, NIKIAK, EUSKAL ARROPA,
MOZORROAK ETA GABONETAN
BEHAR DUZUN GUZTIA!

Juan Bautista Zabala 3, 48991 ALGORTA / Tfno. 94 460 04 62

ANTOLATZAILEAK:



LAGUNTZAILEAK:



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48911 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kubia 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel
FOTOGRAFIA: Asier Mentraka
TESTUEN ORRAZKETA: Jon Ebebarria
KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Bittor Egurrola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Oskar Fernández, Josu Esnaola, Xabier Buenetxea, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarna Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz koptatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago
© Boluntzarreta
Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaidea da

Aldizkari honek Bizarna Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du

Itxasgane Etxea / Karitatea 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta

GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du

Leioako Udala

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du

Erandioko Udala

Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du

Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

Fundación Grupo Eroski

Aldizkari honek Eroski Jaurlaritzaren Kultura Salaren dirulaguntza jaso du

UK

Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntzak

BBK 2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Erandio

Konturatu barik ale hau oso *erandioztarra* atera zaigu. Arte areto bihurtutako merkaturu ipini duten Zumetaren erakusketa denon ahotan dabil. Beragaz egon ginen. Bestetik, aldizkariaren erdiko orrialdeetan *La franco*-ko garabiaren erretratua argitaratu dugu. Fotografia atala *Erandio, oroimenerako irudiak (1889-1990)* argazki liburutik hartu ditugun erandioztarren erretratuak osatu dugu. Eta jakina, ale guztietan Erandiori eskaintzen dizkiogun orrialde biak ere aurkituko dituzu.

Erandio gure eskualdeko herria da eta hori horrela den neurrian UK-n hangoaren berri ematen saiatzen gara. Getxoztarregiak (algortarregiak gehiago zehazteko) garela aurpegiratu digu irakurle batek baino gehiagok. Baliteke, eta hori zuzentzen ere saiatzen gara.

Bada, esan bezala, Erandio eskualdeko herria da baina han bizi ez den eskualdeko gainerako herrietako zenbat lagun hurbiltzen da hara bisitan? Zenbat getxoztarrek ezagutzen du, esaterako, Martiartuko dorretxea? Zenbat berangoztarrek hartu du pote bat Arriagan? Galdera hau jakina, beste era batera ere egin daiteke. Zenbat erandioztar egon da, esaterako, Plentziako itsas-museoan? Zenbat plentziarrek zapaldu du Munarrikolanda mendiko tontorra? Esan gura da, oso, baina oso gitxi ezagutzen dugula uribekostarrok gure eskualdea. Eta egon badago zer ikusi, asko gainera.

Ez dizugu proposatu nahi udako oporrak Barrikan igarotzea (edo bai, zergatik ez?), baina egin aproba, irakurle, eta joan arratsaldepasan, esaterako, Erandiora, Zumetaren erakusketa ikusteko edota Martiartu inguruan paseatzeko.

Ez zaizu damutuko. 4

UK-ko lantaldea

gutunak

Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuen testuak bidaltzeko: uk@aldizkaria.biz • Faxa: 94 491 58 31

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

Goizero erosi > **berria**



GETXO, 2004-11-10

Ahaztutako oinetakoak / Zelan ailegatu dira oinetako horiek kable horretara? Argazkia ikusi eta berehala horixe izan zen erredakzioan geure buruari egin genion itauna. Hasikeran pilotoren bati hegazkinetik jauzi zitzaizkiola pentsatu genuen. Oker genbiltzan. Gero jakin dugu bidelaster hau Berangoko ekilibristak erabiltzen duela gauero etxera joateko. Akaso berak ahaztuko zituen. / Argazkia: **Asier Mentraka**

Leihatila

> Josu Esnaola

Kopuruak

Zeri buruz idatzi ez nekiela-eta, hemeroteka astintzen ibili naiz egunotan. Eta bere garaian hainbeste hauts harrotu arren, gaur egun, ia guztiok ahaztuta dauzkagun bi gairekin egin dut topo.

Bata *Camille* Pirinioetako hartz arrearen heriotza. Eta horren gainean asko idatzi bada ere, gehienek arazoa azaletik baino ez dute aztertu, ehiza bai ala ehiza ez, nola, noiz eta abar. Inork ez du sustraietara jo, inork ez du galdetu zergatik geratzen diren hain ale gutxi. Elkarrizketa batean baino ez dut irakurri espezie batek aurrera egin dezan bi baldintza bete behar direla: habitat egokia eta gutxieneko kopurua, arrak eta emeak, jakina.

Bestea Txinako nushu hizkuntzaren, emakumeen hizkuntza ezkutuaren, azken hitzuna hil dela eta horrekin batera zera aipatzen zen, munduan bost mila hizkuntzatik gora daudela galtzeko arrisku larrian.

Gero gureru begiratu eta euskararen gainean erakundeetatik jasotzen dugun mezu baikorra eta inguruan sumatzen dudana egoera erreala ikusirik, habitat egokia al daukagu? Benetako hiztunen gutxieneko kopurua, arrak eta emeak, jakina, al daukagu? Bakoitzak pentsa dezala, nik biologiaz ezer gutxi dakit-eta. 4

IRITZIA

Abenduaren 3an 'Euskararen Eguna' ospatu da. Honen harira gogoeta eskatu diogu Joseba Butron euskara irakasleari

Euskara, Lurreko harribitxi bat

Astrologoek eta zientzialariek gure planetari buruz hitz egiten dutenean, sarritan nabarmentzen dute ideia bat, alegia, Lurra, gure planeta, mirari bat dela unibertsoaren handitasunean. Milaka eta milaka konstelazio eta izar-sistema daude, milioika izar eta eguzki eta, kalkuluaren arabera, milaka milioi planeta. Eta, hala ere, gizakiok dakigunetik, gure planeta da bizirik dagoen bakarra. Harribitxi bat kosmosean, kristalezko bihotz bat, mirari hutsa.

Eta Lurrean gizakiak, gizaki asko, hizkuntza askoren bidez elkarrekin komunikatzen, pentsamenduak adierazten, bizitzako gorabeherak kontatzen, sentimenduak hitzen bidez transmititzen... Eta hori guztia eta gehiago, hizkuntza askoren bidez. Izan ere, egin diren ikerketen arabera, gure munduan 5.000 hizkuntza inguru daude –pentsa dezagun 5.000 planeta daudela hizkuntzen unibertsoan—. Baina, jakina, planetak multzo handiago baten parte izaten dira; kasurako, Lurra Eguzki Sistemaren atal txo bat da. Bada, modu berean, Lurreko 5.000 hizkuntza horiek 16 familiatan biltzen

dira; hots, 16 sistema handi ditugu. Beno, zehatz esanda, 16 familia gehi bat, hots 17. Eta Europan, zenbat? Hara, biodibertsitateari dagokionez, Europa nahiko pobrea da eta, horregatik, 17 familia horietatik Europan 3 baino ez daude. Europako 3 familia horiek 54 hizkuntza biltzen dituzte. Laburbilduz: Lurrean 5.000 hizkuntza daude, 17 familia; Europan, 3 familia, 54 hizkuntza.


Europako hizkuntz familiarik handiena indoeuroparra da, ibairik handiena, zeozelan esatearren. Handiena da adar asko dituelako: hizkuntza germaniarrak, erromanikoak, eslaviarrak, baltikoak, zeltikoak, grekoa. Jakintsuek diotenez, familia hori, indoeuroparra, orain 5.000 urte inguru hedatu zen Europan;

«Familia, adarra eta hizkuntza da aldi berean euskara»

ibai handia izan zen, uholde indartsua, uriola, eta orduko hizkuntza guztiak aurretik eraman zituen. Guztiak? Ez horixe. Batek iraun zuen, historia egiteko; gu bizi gintezan. Horregatik da harribitxia. Eta, horregatik, ikertzaileek munduko hizkuntzak ikertu eta sailkatzen dituztenean, 17 familia aipatzen dituzte. 17 horietako bat gure hizkuntza da: familia, adarra eta hizkuntza da aldi berean. Eguzki bat da hizkuntzen kosmosean, sistema oso bat, izar bat diz-diz, iluntzeko edo egunsentiko artizarra bezala.

Gure bizimodu gero eta globalizatuago honetan nekez begiratzen dugu zerurantz gauetan, argi artifizialekin bizi gara-eta, neoizko iragarkiekin... Baina burua apurtxo bat altxatuko bagenu, oskarbian, zeruaren edertasunean izarak ikusiko genituzke, eta izarren artean astro distiratsu bat, lehena agertzen dena eta gehien irauten duena, egunsentira arte, gure gozamenerako. 4

Joseba Butron (irakaslea)

**Iraganez doa denbora* beti / ARRIGUNAGA (EDO EREATXU)**

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

photoshop > transgenikoen eragina ete?



Erakusketan ikus daitekeen irudietako bat

erakusketa > 'Habla en cristiano'

Euskararen Jardunaldien barruan "Habla en cristiano" erakusketa jarri dute Torrene kaleko erakusketa aretoan (BBK). Abenduaren 19ra arte egongo da ikusgai eta euskararen iragana, oraina eta etorkizuna ezagutzeko aukera dago bertan. Antolatzaileek azaldu legez, erakusketa hiru zatitan bana daiteke: lehenengoak, euskarak historian izan duen bilakaera eta jasandako jazarpen-estrategien ondorioak azaltzen ditu; bigarrenak, gerra zibila osteko Euskal Herriko herri bat irudikatzen du eta horren bitartez garai hartan euskaldunak zelan bizi ziren erakusten du; eta hirugarren eta azken zatia, "trantsiziotik" etorkizuneraino garamatzen tunel bat da, eta bide horretan euskarak izango duen bilakaera ezagutu ahal izango dugu. "Habla en cristiano", hala esaten ei zieten euskaldunei. Euskaldunak ez ziren ba kristau fededunak? Baten batek burua altxatuko balu... Dena dela, fededunak behar ditu gure hizkuntzak gaur egun, euskararen erlijioan sinisten duten jarraitzaile sutsuak. m

SATISTEGI

CAFE

ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

agerraldia > emakumeen alde



Areetan Emakumeenganako indarkeriaren kontrako elkarretaratzearen argazkia

Genero Indarkeriaren aurkako bateratze isila egin zen Getxon (Areetan) azaroaren 25ean. Egun horretan mundu osoan egiten da Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna, eta Getxon ezeze, Uribe Kosta osoan ere antolatu zituzten tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei elkartzuna adierazteko ekitaldiak. Getxon egin zen elkarretaratzea Eskuz Esku, Gizatiar, Roda, Lagun Artean, Andrak eta Etxekin udalerriko emakume elkarteek antolatu zuten. Emakumeak izan ziren protagonistak elkarretaratzean. Hala eta guztiz ere, genero indarkeriagaz amaitzeko denok egin behar dugu lan, emakume zein gizon izan. Izan ere, ardura ez da emakumeena bakarrik. Emakume askok bizi duten amesgaiztoari amaiera ematea denon esku dago; zure esku, gure esku. m

kale izendegia > Andres Isasi



Musikagile hau Bilbon jaio zen 1890eko urriaren 28an. Batxillergoko ikasketak amaitu ostean, Berlinera joan zen musika ikastera Karl Kampf eta Humperdinck maisuakaz. 1914an zenbait poema sinfoniko estreinatu zituen Alemaniako hiriburuan, horien artean, *Bigarren sinfonia*, *Lo dagoen amodioa* izenaz ezagunagoa dena. Bartzelonako Orkestra Sinfonikoaren buruan zegoen Arbós maisuak lehen mailako musikagile bihurtu zuen Andres Isasi obra hori interpretatuz. Baina arrakastarik sonatuena Budapesteko Akademiaren Aretoran lortu zuen Angelus izeneko koru-obragaz. Algortako Itxaso Alde jauregitxoan bizi izan zen hil bitartean, 1940ko apirilaren 6an. Bai Getxoko Musika Eskolak bai Algortako kale batek bere izena daukate. m

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fritu lehorak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletexe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

etorri
eta
ikusii!

MORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA
KIZOL moda



350

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

Immigrazioa Getxon

2004ko uztailean jasotako datuen arabera, **etorkinek biztanleriaren %4a osatzen dute, 3.327 bizilagun**, erdia baino gehiago **emakumeak dira** eta gehiengoa **Algortan** bizi da

Azken 8 urteotan, Getxon bizi diren etorkinen kopurua ia laukoiztu egin da. Hori eta beste hainbeste datu ondorioztatu ditu udaleko Gizarte Zerbitzuak azaro amaieran aurkeztu duen "Atzerriko immigrazioa eta Tokiko Administrazioa" txostenak. Txostena egiteko ikerlana Euskal Herriko Unibertsitateak egin du.



'Atzerriko immigrazioa eta Tokiko Administrazioa' txostenaren aurkezpen ekitaldia

"Atzerriko immigrazioa eta Tokiko Administrazioa" bi zatitan bana daiteke, lehenengoak Getxoko etorkinen biztanleriaren inguruko datuak eta umeen eskolatzeari buruzko informazioa batzen ditu; bigarrenak, ostera, tokiko administrazioaren esparruan immigrazioaren pertzepzioaren gaineko informazioa batu, jatorrizko eta etorkinen herritarren arteko bizikidetasuna aztertu eta antzeman diren erronkak azaltzen ditu.

Getxoko herritarren %4a etorkinek osatzen dute, ia 3.330 bizilagun. Euskal Herrian, biztanleriaren etorkinen portzentaia altuenetakoa daukan herriaren artean dago Getxo, eta Bizkaian etorkin gehien hartu dituen bigarren herria da, Bilboren atzetik. Azkene 8 urteotan, Getxoko etorkinen kopurua ia laukoiztu egin da, 1996an 988 bizilagun ziren, eta 2004an ia 3.330 lagun. 1996an biztanleriaren %1,2a ziren, gaur %4a osatzen dute. 87 herrialde desberdinetako etorkinak bizi dira gaur egun Getxon. Etorkinen %42a Kolonbia, Ekuador eta

Boliviatik etorritakoak dira, eta ia %60a andrazkoak dira, 1.978 emakume. Gehienak Algortan bizi dira, %54a; Areetan %33a; eta Andra Marin %12a.

Ikasleen %6,6a etorkinak dira Getxoko hezkuntza zentroetan diharduten 7.573 haurren %6,6a etorkinak dira. Sare publikoko zentroetan ikasten du haur etor-

«Sare publikoko zentroak eta A eredia aukeratzen dute ikasle etorkin gehienek»

kinen gehiengoak (%79ak) eta A eredia aukeratzen dute gehienek (%86ak). Erromoko ikastetxea da etorkin ikasle gehien daukan zentroa. m

Zenbait datu

- **Biztanleriaren %4a** osatzen dute etorkinek.
- **Laukoiztu egin da ia** azken 8 urteotan Getxoko etorkinen kopurua.
- **Emakumeak dira** Getxoko etorkinen ia %60a.
- **Erroaldatutako etorkin gehienak Algortan** bizi dira.
- **25 eta 44 urte bitartekoak dira** Getxoko etorkin gehienak.
- **Ikasle getxoxtarren %6,6a** osatzen dute etorkinek.
- **Sare publikoa eta A eredia** aukeratzen dute ikastetako burutzeko Getxoko ikasle etorkin gehienek.
- **Ikerketa EHUK** egin du udaleko Gizarte Zerbitzuek aginduta.
- **www.getxo.net** gunean irakur daitezke ikerketaren emaitzak.

Anbulatorio berria Algortan 18.000 bat laguni zuzendutako zerbitzua



Anbulatorioa lekutuko duten orubea

Eusko Jaurlaritzak Martikoena eta Alango kaleen arteko orubean anbulatorio bat eraikitzeke asmoa dauka. Orubea (suhiltzaileen ohiko eraikina eta Getxoko ur biltegiak zuden lekua) udalarena da, eta Getxoko alkate Iñaki Zarrakoak azaldu legez, *"udalak ingurune hori eskaini zion bere ganaian Jaurlaritzari, onaindik ez dugu hitzarmenik sinatu, baina akordio batera helteaz gaude, aurre-akordio bat badaukagu, baina ez dugu ezer ere sinatu"*. Jaurlaritzaren eskaera ofiziala jasotzeko zain

daudela jakinarazi du Zarrakoak, hori eskuratu ostean udalbatzari aurkeztuko litzaioke egitasmoa, eta bertan hartuko litzateke erabakia. Bidezabaleko anbulatorioa handitzea ei zen Jaurlaritzak hasieran zeukan asmoa, baina udalak berri bat egiteko proposamena egin zion. Martikoenakoa eraikiz gero, hiru lirateke Getxoko anbulatorioak Bidezabalekoagaz eta Santa Anakoagaz batera. Martikoenako osasun zentroak Algortako eta Neguriko 18.000 bat laguni emango lieke zerbitzua. m

"OLNTZRORI SMS-A" LEHIAKETA ANTOLATU DU EGIZUK ABENDURAKO

Euskararen erabilera egunero ohikoak diren esparruetan bultzatzeko helburuagaz, SMS bitartez Olentzerori mezuak bidaltzeko lehiaketa prestatu du Egizuk. Mezuak abenduak 6 eta 19 bitartean bidali beharko dira (behean zehazten den helbidera). Esan barik doa, mezuak euskaraz izan behar dutela, jatorrizkoak eta pertsona bakoitzak bakarria bidal dezakeela. Olentzerori helarazi gura zaion mezuaren ondoren igorlearen izena eta telefono zenbakia agertu beharko dira. Epaimahaia herriko 3 euskaltegiak eta Bizarra Lepoan euskara elkarteko ordezkariak eta udaleko Euskara Zerbitzuko teknikariak osatzen dute eta irabazleak ezusteko saria eskuratuko du.

Mezua bidaltzeko: 605739916 edo egizu@euskalherria.org

EUSKARAREN ERABILERA AZTERTUKO DUTE HAUR HEZKUNTZAN

Haurtzarolari lotutako esparruetan euskararen erabilerean gaineko azterketa Elhuyar-Zubide S.L. enpresari agindu dio Getxoko udalak. Urtea amaitu baino lehen hasi, eta 4 hilabeteko epean haur hezkuntzako zentruetan, haurtzaindegietan, eta umeentzako jarduerak eskaintzen dituzten akademia, enpresa, erakunde eta abarretan euskararen erabilerean diagnostikoa egin beharko du Elhuyarrek, eta bertatik ondorioztatutako emaitzak kontuan hartuta, helburu estrategikoak zehaztu eta horiek lortzeko ekintzak finkatu beharko ditu.

TURISMOAK ETA FURGONETAK ALOGEREA

ZERGATIK EZ AUTO BAT
BEHARRIZAN BAKOITZERAKO?

Norbanakoentzat zain enpresentzat; bakarrik nahiz tresneria guztiarekin joateko; etxetik irteko nahiz berri aldean erosteko...

Aukera ugaria ibilgailuak alokatzeko, zeuk hautatu turismoak, monobolumenak, furgonetak eta ibilgailu industriak.

Beste Alde Ren a Caren auto bat dugu beharrian bakoitzerako. Eta, bestela, zeuretzat egokituko dugu eta zauden lekuan bertan entregatuko dizugu.

Informazio gehiago, **Renault Gaurisa eta Bilbo Berri** kontzesionarioetan

BESTE ALDE

rent a car

GALDETU ENPRESENTZAT DAUDEN BALDINTZAK

618 88 12 42

e-mail: bestealde@bestealde.com www.bestealde.com

Gazteei

zuzendutako lantegiak egingo dira Gabonetan

Bost lantegi antolatu ditu udaleko Gazteria Zerbitzuak Gabonetarako. 12-17 urte bitarteko gaztetxoentzat larru, zirku eta malabare, perkusio, sexualitate eta drogei buruzko lantegiak prestatu dituzte. Perkusio lantegia izan ezik, beste lantegiak egun bakar batean gauzatuko dira Villamonteko Kultur Etxean 18:00-20:00, eta euskaraz zein gaztelaniaz eskainiko dira. Izena emateko epea abenduaren 13tik 18ra bitartean egongo da zabalik. Bestalde, lantegi batek 3 euroko prezioa dauka, bi lantegik 5 euro, eta denetan parte hartuko dutenek 10 euro ordainduko dute. ^m

Informazio gehiago: 94 491 01 14

ESKOLA LAGUNTZA

- Matematika, Fisika...
 - Maila guztiak
- 10 urteko eskarmentua!!!

T.: 655 739 964

amesti
abak-proiektuak

Berrikuntzak
Etxebizitzak
Lokalak
Bulegoak

Basagoiti etorb. 56
48.991 Algorta

Tel. 944 915 298
Fax 944 915 299
amesti@amesti.com

Ana Iri > bitxigilea

“Molde eta estilo desberdinen fusio itzela eskaintzen dut”



Ana Iri-ren diseinuak www.anairi.com-en ikus daitezke. Harremanetarako: 94 602 29 13

Ana Iri getxoztarrak barne-diseinuaren bidetik eman zituen lehenengo urratsak, baina lan horrek sormenerako leku txikia eskaintzen ziola-eta, bitxigintzan murgildu zen “bitxigintzak nire pentsamenduak eta sentipenak adierazteko eta sormen-lana gauzatzeko aukera ematen dit”. Hora Zulu (Algorta), eta Stock Option-en (Areta eta Bilbon) eskura daitezke diseinuak.

—Zelan hasi zinen bitxigintzan?

—Barne-diseinutik bitxigintzara alde handia dagoela ematen du, baina badira antzekotasunak: proiektzioa, 3 dimentsioak kontuan hartu behar dira... Gero eta bitxi handiagoak egiten hasi nintzen, eta metalezko arropak ere egiten ditut gaur egun. Moda munduan aurkeztu nituen nire diseinuak, ondorioz, moda denden bitartez merkaturatzen hasi nintzen. Marta Teran moda disenatzailea ezagutu nuen gero, beragaz ibili naiz, eta datorren udaberri-udarako berak aurkeztuko duen kolektzio elementu osagarriak nik diseinatutakoak izango dira. Moda eta denden eskaintzak aztertzen ibili naiz, eta bezero horientzako nik zilarrezko kolektzio bat sortu nuen, azken finean, modari begira eta horri egokitutakoa, eta jendeak nahiko ondo erantzun zuen Madrilan, Bartzelonan, Valentzian... Nire diseinuetan moda-

ren joerak eragin handia edukiko du, ziur. Udazken-neguko kolektzioa kalean dago, eta udaberri-udakoa diseinatzen nabil orain.

—Zelakoa da zure kolektzioa?

—Molde eta estilo desberdinen fusio itzela eskaintzen dut nire kolektzioetan: adb. punketa estiloaren eta molde erromantikoaren bat egitea, bezeroa izan liteke makarra itxura eman gura duen pijoa, edota apur bat pijoa den makarra. Kolektzio berriaren inguruan zera aurreratuko dizuet: beltzen hip-hop moldea (zigilu-eraztunak, hizkiak, kateak...) erdi-harribitxi oso fin dotoreakaz uztartutakoa izango da. Metal preziatuak, zilarra, erdi-harribitxiak etab. erabiltzen ditut, eta arropak egiteko imitaziozko bitxiak zein zilarrez edo

“Marta Teran-en kolektzio berriko osagarriak nire diseinuak dira”

kobrez estalitako letoizko kateak etab. Bestalde, nik eskainitakoa ez da bitxigintza tradizionala, diseinuak ez direlako ohiko bitxidendetan saltzen, eta bezeroak ere desberdinak dira; lan-metodoa, oster, berbera da. Baina ez ditut bakarrik eraztun, katea eta arrakadak eskaintzen, bestelakoak ere bai: gerrikoak, txalekoak, gura modura ipini daitezkeen (gaur harri zuriak, bihar beltzak, hurrengoan biak...) pieza trukagarriak. ^m

Komikiaren sasoi

Abenduaren 10etik 12ra III. Komiki azoka paratuko dute **Areetako Geltoki plazako karpapean**



Aurtengo azokaren kartela

Urteak abendua helmuga daukan legez, komikizaleek abendua daukate jomuga Getxon. Hirugarren urtez jarraian, Getxoko Komiki azokak abenduaren 10etik 12ra zabalduko ditu ateak. Areetako Geltoki plazako karpa komikizale, bildumazale, irakurle, egile eta komikigintzako profesionalen topaleku izango da berriro ere. Azoka goizez (11:00-14:30) eta arratsaldez (17:00-21:00) egongo da zabalik. Komikiaren topagunerako sarrerak euro bateko prezioa dauka, eta horren truke aldizkari bat oparituko dute.

Azoka lau alde nagusitan banatuko da: alde komertziala, erakusketen txokoa,

lantegientzako eremua eta eginkizunetarako aretoa. Alde komertzialean, 50 erakusmahai baino gehiago ipiniko dituzte. Bertan, argitaletxe, erakunde, denda eta fazinen azken aleak edota agortutako argitalpenak aurkitu ahal izango dira.

Gross, Ezquerria eta Talbot, Getxon
Baina Kultur Etxeak antolatzen duen azoka komiki salerosketa baino gehiago da, erakusketa interesgarriak, hitzaldiak, lantegiak, mahainguruak eta abarrek osatzen dute egitaraua. Aipatzekoa da, entzute handiko komikigileak hurreratuko direla Getxora, besteak beste: Peter Gross, Carlos Ezquerria eta Bryan Talbot. ^m

DANTZA ALARDEAGAZ GOZATZEKO AUKERA PORTU ZAHARREAN

San Nikolas eguna ospatzen da abenduaren 6. egunean. Itxartu Dantza tadeak ere ospakizun horregaz bat egin gura izan du, eta dantza alardea antolatu du abenduko lehenengo astelehenerako. San Nikolas elizan egingo den mezaren ostean, kalejiran abiatuko dira Portu Zaharra eta bertan, esaterako, Kaxarranka dantza eskainiko dute. Bestalde, Itxartu Musika taldeak txistu, pandero eta trikixa doinuak alaituko du San Nikolas eguna.

GETXOLANDIAK ABENDUAREN 22AN ZABALDUKO DITU ATEAK

Umeen paradisuak berriro ere zabalduko ditu ateak Getxon. Abenduaren 22an hasi eta urtarrilaren 5era arte Areetako Geltoki plazan paratuko dute Gabonetako jolasparkea. Abenduaren 22an arratsaldez bakarrik egongo da zabalik, gainontzeko egunetan goizez zein arratsaldez (11:00-14:00 eta 17:00-21:00), eta abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da. Bestalde, barraketako 6 bidaiako txartelak 3 euro balioko du, baina barrakez gain, lantegiez eta bestelako ekintzez ere gozatu ahal izango dute umeek.

“OLENTZERO: NIK NAHI NUKE...” ANTZEZTUKO DUTE GETXO ANTZOKIAN

Getxoko Antzerki Eskolak udaleko Euskara sailagaz batera, “Olentzero: nik nahi nuke...” egitasmoa martxan ipini zuten azaroan. Horren helburua Gabonetako antzerki lan baten bitartez euskal kulturaren sustraiak eta mitoak ezagutzera ematea da. Trinitarias, Erromo, Zubilletas eta Geroa ikastolatak ikasleen gutunak batu zituen Ignacio postariak Olentzerori emateko. Horiekaz antzerki lan bat osatuko dute eta Getxo Antzokian eskaini (abendua 12, 21, 23, 24).

cianoplan s.a.
global printers

Villa de Pientzia 5. zbk
Antiguo Golf - Getxo

tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91

<http://www.cianoplan.es>

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

Euskara elkarte berria

Leioako **euskaltzaleen bilgunea** eta euskararen erabilera indartzeko tresna berria **abian** ipini dute herriko 50 lagunek: **Berbalamiñe euskara elkarte**

Euskararen erabilera indartzea eta euskaldunen komunitatea trinkotzea euskal giroa berpiztuz, euskaraz kultura ekintzak antolatuz eta euskaltzale guztien indarrak batera joaz. Helburu horiekin, eta euskara bera abiapuntu eta helmuga harturik, Berbalamiñe Euskara Elkarte sortu berri da Leioan. Elkarte berriaren aurkezpen eta eratze ekitaldian, azaroaren 18an, kiroldegiko ekitaldi aretoa txiki geratu zen bertaratu zen jende kopurua hartzeko. Bertan 50 leioztar inguruk parte hartu zuten eta botazio bidez estatutuak, elkartearen izena eta zuzendaritza karguak onartu ziren. Halaber, aurreneko bazkideek euren izena eman

«Euskararekin zerikusirik ez duten gaiak ez dira elkartearen eztabaidatuko»

zuten.

Aipatzekoa da ideologia politikoetatik at jaio eta bizirauteko xedez sortu dela Berbalamiñe, estatutuaren bertan adierazten den bezala, *“alderdi politiko eta sigla guztietatik kanpo, euskararekin zerikusirik ez duen gairik ez da eztabaidatuko”*.

Euskara Elkarte berriaren jarduerak parte hartzailea izan nahi du erabat. Horregatik bazkideak eurak, zuzendaritza taldearen laguntzaz, izango dira lan alorrak



Argazkian, Berbalamiñe euskara elkartearen aurkezpena

(kultur ekitaldiak, mendi irteerak, ikastaroak, ...) aukeratu dituztenak. Gai bakoitzaren inguruan batzordeak eratuko dira antolaketa lana egiteko eta jarduerak zehazteko. Bakoitzean zuzendaritza taldeko kideren bat egongo da koordinazio lana egiteko.

Leioan dabilen euskaltzale guztiei irekia dago Berbalamiñe eta elkarteak izateko baldintza bakarra euskaraz jakitea –berba

egiteko moduan behintzat– izango da, elkartearen ekitaldi eta harreman guztiak euskara hutsez egingo dira eta.

Beraz, euskararekin konpromisoa duen leioztar edo herritik dabilen edonork aukera paregabea dauka euskal giroan murgiltzeko. Bazkideen arteko ezagutza eta harremanak estutzeko afaria (abenduarien 10ean) eta mendi irteera aurreikusita daude. m

E-mail: berbalamine@euskalerrria.org

Baserria plazara

Abenduaren 12an egingo da Leioako **XVII. Nekazal eta Abeltzaintza azoka**



Idiazabal gaztaiaren lehiaketa ere egingo da azokan

Urtero legez garai honetan baserria herriko plazara hurbiltzen da uztak, produktuak eta abereak erakusteko. Aurten, Leioako Nekazal eta Abeltzaintza Azokaren XVII. edizioa, abenduaren 12an egingo da. Egun honetan Boulevard-ak, Aketxe Plazak eta Errekalde Plazak ukulu eta baratzen itxura hartuko dute baserriko produktuen eta ganaduen erakustoki bihurtzeko. Behiak, idiak, ahuntzak, zaldiak, astoak, euskal txerriak, oreinak, oiloak, txoriak, ahateak... ikusteko aldarre ezin hobea.

Baina ikusteaz gain, sabela bertoko produktuakaz bete gura dutenek ere auke-

ra ederra edukiko dute: pateak, txerriak, ogia, eztiak, ortukariak, gaztaia eta hainbat produktu dastatu ahal izango dira. Eta, jakina, txakolinez zein sagardoz zintzurra bustitzeko aukera ere egingo da.

Horregaz batera, harri-jasotzaileen erakustaldiak, nekazaritza tresnen erakustetak, txalatorta dastatzeak, Idiazabal Gazta jatorri izendapenaren Bizkaitar Produktuentzako VI. Lehiaketa, Leioako nekazariari omenaldiak eta bertso saioek girotuko dute goiza. Gainera, gaztetxoek ere euren gunea edukiko dute, herri kirolak eta gaztagintzan edota ardiak ile mozketan trebatzeko tailerrak egingo dira. m

MAITASUN GUTUNEN LEIAKETAREN LAUGARREN EDIZIOA

Laugarren urtez jarraian Leioako Kultur Aretoa Maitasun Gutunen Lehiaketa aurkeztu du. Mezu elektronikoak paperezko gutunaren esparrua bereganatu duen garai honetan, ohitura zaharrak berreskuratzeko asmoz jaio zen sentimenduak eta gutunaren generoa uztartzen dituen lehiaketa hau. Are gehiago, literatur genero zahar hau sustatzeaz gain, sentimenduen komunikazioa bultzatu nahi du. Horrela, komunikazioa eta gutuna uztartzen dituen lehiaketa honetan idazteko trebetasunak, sentimendu adierazpenak eta originaltasunak hobetsiko dira. Hain zuzen ere, irabazlea aukeratzeko, besteak beste, kaligrafia, aurkezpena, paperaren kolorea, ehundura eta usaina baloratuko dira. Parte hartzaileak adinaren arabera kategoria ezberdinetan banatuko dira, eta idazle trebeenenek 240 euroko saria eskuratuko dute.

Gutunak aurkezteko epea: 2005eko urtarrilaren 21a. Tokia: Pinueta Kultur Aretoan edo Kultur Leioan



aldizkaria etxean jaso nahi baduzu

94 491 13 37

UK Urri Kostako Aldizkaria 171 posta kuba
Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Gebro
uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07 • e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa



Inaugurazio arrakastatsua

Zalantza barik, ezin hobea izan da merkaturak erakusketa areto bihurtzeko lehenengo urratsa. Zumetaren lan handiek ederto egokitzen zaizkie merkaturako horma zuri eta erraldoiei. Emili Epelde eta Mikel Mardarasek lan bikaina egin dute merkaturak moldatzen eta bilduma antolatzen. Egindako lanaren lekuko izan zen inaugurazio egunean Erandioren hurbildutako kulturaren eta artearen munduko jendea eta, bereziki, Emiliren aspaldiko lagun eta ezagunak. Emilirentzat merkaturako proiektua berezia da merkaturako arrandegian amari laguntzen ibilitakoa da-eta. Orain, artelanak eskaintzera etorri zaigu Mardarasekin batera. Urtariletik aurrera beste artista gazte batzuen lanak ere ekarriko dituzte.



Argazki hauek guztiak Zumetaren erakusketaren zabalte egunean egin genituen.



11.400 lore herriko kaleetan



Astrabudian, Altzagan ez bezala, apain-apain irauin dute loreek inongo arazo barik

Udalak 7.790 euro inbertitu ditu aurten herriko lorategiak kolorez janzteko eta kopuru hori bikoiztea proposatu dio lorezaintzaz arduratzen den enpresak udalari. Ziklamenak, begoniak, salbiak, pentsamenduak... porlanaren grisa alaitzeko eta apurka-apurka gehituz doazen herriko berdeguneak apaintzeko. Ez dira, ez, diru kopuru handiak inguruko herrietakoekin konparatuz gero, baina bada nobedadea gurean.

Duela hiruzpalau urte lorezaintza zerbitzua pribatizatu zuen arte, Erandioko Udalak ez zuen apenas dirurik gastatzen lore eta landareetan, eta orain badirudi joera aldatu eta loreak lekua irabazten doazela.

Kaleetan oinezkoentzako espaloiak zabaltzen hasi zirenean, zuhaitzak landatu

zituzten lorontzi handietan. Zuhaitzok ez dutenez oraindik gorputz handirik, sasoiaren sasoiko lorez bete dituzte lorontziak urtean zehar. Astrabudian, apain-apain irauin dute luzaroan, inongo arazo barik. Altzagan, ostera, hamaikatzu izan dira desagertu edo alferrik galdutako loreak.

Horregatik, udazken honetan ez dute berriz loredun landareak jarri Obieta, San Inazio eta Jado kaleetako lorontzietan. Horien ordez, harriak eta lorerik gabeko landareak jarri dituzte, horrelakorik inork etxera eramango ez duelakoan. Baina lorategietan kalterik handiena egiten dutenak txakurrak izaten dira. Ikusiko dugu udaletxeko plazan azaroan jarritako pentsamendu berriek zenbat iraungo duten! m

XABIER AMURIZA ETA AMETS ARZALLUS BERTSO-JIRAN, ABENDUAREN 17AN

Berbots Erandion Euskaraz taldeak, urteroko ohiturari jarraituz, bertso-jira interesgarria antolatu du abenduaren 17rako Altzaga auzoan. Xabier Amuriza eta Amets Arzallus arituko dira iluntzeko zortzietan La Plaza tabernan hasi eta tabernarik tabernara egingo den ekitaldian. Kepa eta Roberto trikitilariak ere bertan ibiliko dira doinuak markatzen eta giroa berotzen.

Argazkian, Xabier Amuriza



'EZETZ LEPOA JARRI' ANTZEZLANA ABENDUAREN 16AN

Ile-apaindegi batean krimen bat gertatuko da. Pistak era guztietakoak dira, susmagarri asko dago eta obraren amaiera ikusleen botoak erabakiko du. Izan ere, antzezlanak hainbat amaiera dauka planteaturik, dagoen aukera bakoitzeko bat. Horixe da Joseba Apaolaza, Asier Hormaza, J. Ramon Soroz, Kontxu Odriozola, Ainhoa Aierbe eta Kiko Jauregik aurkeztuko diguten korapiloa, xelebrikeria eta absurdua nahastuta. Ikusiko dugu zein amaiera aukeratzen dugun gurean. Euskara Zerbitzuak abendurako antolatu dituen ekintzetariko bat dugu hau. (*Ezetz lepoa jarri*. Abenduak 16, 20:00, Bekoa ikastetxea).



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurrira.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

SOPELANA-URDULIZ IX. GABONETAKO ESKUPILOTA TXAPELKETA MARTXAN DAGO

Urduliz eta Sopelana arteko Gabonetako eskupilota txapelketa martxan dago dagoeneko. Hona hemen txapelketako hurrengo partiden egitaraua: abenduak 10, final laurdenetako partida Sopelana frontoian (20:00); abenduak 17, final laurdenak Urdulizko frontoian (20:00); abenduak 24, finalaurrekoak Urdulizko frontoian (17:30); abenduak 31, finalaurrekoak Sopelana frontoian (17:30); eta finala urtarrilak 7, Urdulizko frontoian (20:00). Promesa eta senior kategoriako partidak dira denak.

Aitor Elorrieta pilotaria



ITXURA BERRIA EMAN DIOTE SOPELANAKO WEB GUNEARI

Sopelana web guneak aurpegi berria dauka. Udal arduradunek aurkezpen orrialdiari itxura aldatu diote. Aurreko orrialdearen kolorea mantentzen badu ere, diseinu berria eman diote, eta aldaketa erraz antzeman daiteke menuari eta lotura ikonoei erreparatuz gero. Gainera, web guneak herriko berriei eskaintzen dion tarte ere eraberritu dute. Bestalde, udal arduradunek itxuraldaketaren inguruan herritarren aburuak batu gura izan dituzte eta hona hemen jasotako erantzunen arabera emaitzak: %76ak orain hobeto dagoela deritzo, eta %16ak txarrago dagoela.

Ume eta gazte elkarte berria

Abendu erdialdean batuko dira berriro



Elkartea sortzeko asmoa aurkeztu zuten eguneko irudia

Sopelanako guraso talde bat haur eta gazteei zuzendutako elkarte bat sortzeko asmotan dabil. Urri aldean ekin zioten lanari eta haur zein gazte sopoloztarrentzat aisialdirako elkarte bat sortzea zuten helburu. Orain arte, helburuak zehazten, ase beharreko gabeziak antzematen eta, batez ere, sopoloztarrei ideien berri ematen jardun dute. Asmoaren inguruko informazioa Hall-Kulturalean edota Turismo Bulegoan eskuratu ahal izan du gura izan duenak, oraindik ere horretarako aukera badago eta izena emateko epea ere zabalik badago. Elkarte sortze bidean dago, horregatik ez dute izena aukeratu orain-

dik, baina gauza batzuk zehaztu dituzte dagoeneko. Lehen Hezkuntzako 3. zikloko eta Bigarren Hezkuntzako ume eta gazteei zuzendutako elkarte izango da, hau da, 10 eta 14 urte bitartekoentzat. Aisialdiko ekintzak eta jarduerak antolatzeko asmoz sortuko da, aste-akabuetako ekitaldiak etab. prestatzeko. Esan legez, guraso talde baten ekimenez sortu da elkarte, era autonomoan funtzionatuko du, baina udalak nolabaiteko dirulaguntza emango dio elkarteari eta taldekideak batzeko leku bat ere eskainiko die. Bestalde, sortzaileek azaldu legez, abenduan batzartuko dira berriro ere. m

Bidaia luze bati gorazarrea

Sei sopoloztari omenaldia



M. Luisa Basaldua (1913), Ruperto Delgado (1918), Marcelina Alonso (1913) eta Francisco Gomez (1918)

Zuri beltzeko orotzapenak. Hamaika koloredun istorioak. Historiaren aitormena lehenengo pertsonan egin ditzaketanak. Teknologia berrien aurreneko pausuen hastapenetako bultzatzaileak. Gaur egungo abiadura handiaren patxada eta lasaitasuna. Oraina ulertzeko iraganaren ezagutzaren ugazabak, honaino heltzeko pausuak banan-banan eman dituzten denboraren bidaiariak.

Bidaia luze horrek, besterik ezean, gorazarrea merezi du. Sei izan dira, abenduaren 24an Nagusien Etxean omenaldia jaso zuten sopoloztarrak: Maria Delia Garay Amechazurra, Maria Luisa Basaldua Ortiz de Zarate, Lorenza Martinez Gomez, Marcelina Alonso Sainz, Ruperto Delgado Alfaro eta Francisco Gomez Salazar. Den-denak edadekoak, noski, 90 urte baino gehiagoko gizonzakoak eta 95 urtetik gorako andrazkoak. Zer ez ete dute ikusi haien begiek? Zer ez ahaztuko? Zer ez zuten barneratuko ulertu barik? Zein izango litzateke mendeko aurkikuntza haien aburuz? Irak, Afganistan, Palestina...



eta abarri begira zer gogoratuko ete dute? Zer ez ligukete kontatuko arretaz entzungo bagenie?

Eta esateko badute

“Informazioaren gizarteak” ez ei du behar haiek dakitena, sarean ei dago informazio guztia. Baina sarea sentimendu bakoa da. Baleki gazteak eta baleza zaharrak. Eurek munduari begiratzeko modu bat daukate, zaharregia, agian. Agian. m

LAIKAK
Taberna

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94.6760328

ANDER DEVINA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email: sopela@ikastola.net

JATETXE BEGETARIANO

- Eguneko menuak
- Asteburuetan menu bereziak

Sertutxa 4, Sopela
Telf. erreserbak: 645 732 991

wuri haizta
jan eta edan

4 bide
pinturak

RIPOLEN
BONDÉX
DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturbarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

Instalazio elektrikoak
Electro LAIA

Larrialdi Zerbitzua 24 orduz
670 415 732

LARRABASTERRA

Konpromisorik gabeko aurrekontuak / komunitate, lantegien...
mantenimendua / ebkezitza, lonja, pabilioen erreformak /
bonba hidraulikoak / telefonia, ahots eta datuen sareak

Lacofris, s.l. SERVITEC

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA

& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA

HIRURAK

T: 430

Sarikobaso 15

Esther Zorrozu > idazlea

“Neguriko burgesia zelan sortu eta beste klase sozialekin nahastu zen kontatzen dut”



Abenduaren 15ean La Casa del Libro-n (Bilbo) aurkeztuko du Zorrozuak *La casa de la Galea*

Uribe Kosta bizileku aukeratu zuela 20 urte baino gehiago dira, eta azken 12 urteotan Berangon bizi izan da Esther Zorrozu. Erandioko institutuko irakaslea da eta Durangoko Liburu eta Diskoen azokan aurkeztuko du bere lehenengo nobela: *La casa de la Galea* (Hiru, 2004). Uribe Kostako errealitate historiko jakin batean oinarritutako fikziozko nobela idatzi du, “*nik ez dut ikerketa ezta datu historikorik erabili, kalean eta etxean entzundakoak-eta bakarrik*” diosku. Ipuinak ere idatzi ditu.

—Plazaratzen duzun lehenengo nobela da, baina ez idazten duzun lehenengoa, ezta?

—Argitaratzen didaten lehenengoa da, berririk ere badaukat baina argitaratu barik. Betidanik idatzi izan dut, urte askotan pentasatu izan nuen idazten nuena ez zela ona eta apurtu egiten nuen. Eta orain dela 15 urte-edo, hasi nintzen idatzitakoa gordetzen, esperantza handi barik, baina... Gero, aukera euki nuen idazketa tailer batean sartzeko, eta hortik aurrera, ausartu nintzen argialetxeetara bidaltzen nire liburuak, eta beitu! 4

nobela ditut, guztiak bidali ditut, eta hortik dabilta danak bueltaka, honek bakarrik urten du momentuz. Orain dela 6 urte hasi nintzen nobela hau idazten, eta orain, bosgarren bat dago martxan. Bueno, momentu honetan bertan geldituta, honen aurkezpen kontuak direla-eta.

—Zertan datza liburuak?

—Ez da nobela historikoa, hori argi utzi nahi dut, bestela igual batzuk “pikatu” egingo dira-eta. Dena da fikzio hutsa. Bestalde, nobelan, fikzio aldetik beti ere, azaldu nahi

dut hemengo burgesia edo “Neguritikoak” zelan, zergatik sortu ziren, zelan egin zuten dirua arma trafikoarekin... I eta II. Mundu Gerren artean, bitarte hori izan zen eurentzat momenturik onena. Gero, pasatu ziren urteak, eta apurka-apurka, boterea galtzen joan ziren. Badakigu, beste faktore batzuk egon zirela tartean, baina nik ez ditut aipatzen. Orduan, beste elkarrizketaren batean azaldu duduan moduan, Monarkiak ere ikusten duenean bere barruan endogamia sortzen ari dela, zer egiten du? Egon dira denbora luzean euren artean ezkontzen, eta orduan sort-

“Ez da nobela historikoa, hori argi utzi nahi dut, fikzio hutsa da”

zen dira lakrak edo orbainak. Hori konpontzeko, gaur egun ere ikusten dugu ezta?, nahastu egiten dira beste klase sozial batzuekin. Eta nire nobelan azaltzen da apur bat, eta berriro ere esaten dut fikzio aldetik, “Neguritikoak” zelan nahastu izan diren beheko beste klase sozialekin, batzuek alde egin dute hemendik, bai, baina beste asko nahastu egin dira. Gutxi gorabehera, hori da nobelaren argumentua.

—Eta zeinen eskutik barneratuko gaituzu istorioan?

—Garamendi familiaren istorioa da, hiru belaunaldi agertzen dira eta lagurren bat sortze bidean. Ehun bat urte edo hartzen du nobelak, ia-ia mende osoa.

—Orain arteko lan guztiak gaztelaniaz idatzi dituzu, euskaraz idazteko asmorik ba al daukazu?

—Hor dago kezka. Nahi nuke. Baina, heziketa guztia gaztelaniaz jaso dut, eta erretzatsun handiagoa daukat gaztelaniaz idazteko. Baina, gustatuko litzaidake euskaraz ahalegintzea. Hemendik aurrera... behar bada. m

Bisita gidatuak doan

Plentzia hobeto ezagutzeko aukera
institutuko ikasleek gidatuta



Plentziako Uria bisita gidatuaz gozatu gura izanez gero deitu zenbaki honetara: 94 677 16 95

Uribe Kosta institutuan (Plentzia) dabilta goi-mailako heziketa ziklo bat ikasten: Informazio eta Merkataritza Turistikoa, hain zuzen. Zikloak praktikentzako lekua ere badauka, eta praktiken alde bat Plentziako bisita gidatuak eskaintzea da. Zikloko lehenengo urtean dauden ikasleen gidaritzapean egiten dira orain dela 6 urte bitisitak, baina eurek ezin dutenean bigarren mailakoek eskaintzen dituzte. Aurten lehen mailan 10 ikasle dabilta, bigarreanean, oster, 11.

Bisita asteke edozein egunetan eskaintzen dute, zapatu eta domeketan ere bai, eta euskaraz, gaztelerez eta inoiz ingelesez ere egin izan dute; gainera, doan eskaintzen dute. Susana Arakiztain zikloko arduradunak azaldu digu bisitaren nondik norakoa: “*Bisita tren geltokian hasten da, Zubi Barria pasatu eta alde zaharrena joan-*

go gara. Han azaltzen da zelan Plentzia Erdi Aroan “huria” zan, eta bere jardueran nagusia ontziola zala: kontetan da nondik ekartzen zuten egurra ontziak egiteko etab. Gero, esaten da, holan ganetik, erromesak Santiagoko bidean hemendik pasatzen zirela, erromesen eritexxe bat zegoela... Erakusten dira ondino dagozen aztarnak, adb. harresiarena, eta ikusten ditugu museoa, XV. mendeko eliza...”.

Lan itzela bisita prestatzeko

Baina Arakiztainek dioen legez, ikasleek lan itzela egin behar dute bisita eskaini aurretik. “*asko ikasi, eta dana buruz, halako bisita baten ezin dozu “ixuletarik” eroan. Asko ikertu dogu bisitaren ganean: liburutegian, interneten, Eusko Jaurjaritzaren eta Aldundiaren argitalpenetan...”.* m

ITSAS MUSEOAK ORDUTEGIA ZABALDU DU

Plasentia de Butron Itsas museoak orain arte zeukan ordutegia zabaldu du. Hemendik aurrera, egueztenatik domekara goizez egongo da zabalik, eta bariku zein zapatu arratsaldeetan ere museo bisitatzeko aukera egongo da. Goizeko ordutegia 11:00etatik 14:00etara bitartekoa da, eta astean bitan arratsaldez zabalduko ditu ateak, 17:00etatik 20:00etara.

**KURKUDI
LIBURU DENDA**

**Euskarazko
irakurgai**

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402



**TXIBERRI
edantokia**
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

BASTARTEA



URDULIZ

Teléfono: 940 761 123

**Ajuria
taberna**

Andrés Cortina 2

ALGORTA



HILAREN 11N OSPATUKO DUTE LEMOIZEN EUSKARAREN EGUNA

Euskararen eguna ospatuko dute Armintzako frontoian lemoiztarrek abenduaren 11n, 18:30etik aurrera. Kixkaren txotxongilo ikuskizunagaz gozatuko dute ume guztiek, frontoia euskararen eta txotxongiloen magiaz beteko da. Bestalde, Gabonetako kirol parkea paratuko dute Armintzako frontoian abenduaren 18 eta 19an.

GURUTZEGUNE BERRIA EGINGO DUTE ANDRAKAN

Andrakan gurutzegune berri bat egiteko hitzarmena sinatzekotan dabilta Lemoizko udala eta Bizkaiko Foru Aldundia. Hitzarmenak aurreikusten duenez, Bizkaiko Foru Aldundiak 360.000 euro emango litzuzke gurutzegunea egiteko. Lemoizko gobernu batzarrak onartu du dagoeneko gurutzegunea egitea, orain hitzarmena noiz sinatuko zain daude.



BARRIKA

Txaletak eraikitze lurrak murriztuko dira



Eraikitze lanak Barrikan

Hemendik aurrera Barrikan eraikigarriak diren lurretan txaletak ez dutela ia lekurik edukiko adierazi dute udal arduradunek. Barrikako alkate Jose Mari Ezpeletak azaldu legez, orain arte eraikitze kalifikatuta zeuden lurretan aurreikusitako txaletak egingo dira, baina hemendik aurrera udalak eraikitze kalifikatuko dituen eremuetan etxebizitzek edukiko dute lehentasuna. *"Hemetik aurrera txalet gixxi eingo diez, batan bat eingo*

da, baia gixxi, lehengo hainbeste ez. Eingo diez pisuk, altura bikoak-edo", dio Ezpeletak. Eraikitze lurrak kalifikatzeko Lurraldeko Plan Partzialaren (PTP) baieztapenaren zain dago udala. PTPak udalaren asmoak onetsiz gero 800 bat etxebizitza eraikiko lirateke, eta Barrikako alkateak aurreratu moduan, *"horreen %10a edo udalantzako gordeko diez, edo beste lur batzuk kalifikakoz diez udal-etxebizitzak eiteko".*

Abenduak 5-20

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

ERAKUSKETAK

GETXO

- ▶ **Laura Gomez Melgosa-ren olioak.** Algortako Kultur Etxea. Abenduaren 30era arte.
- ▶ **Aspremar-en erakusketa.** Erromoko Kultur Etxea. Abenduaren 16ra arte.
- ▶ **Maria Concepcion Tamayo-ren akuarelak.** Erromoko Kultur Etxea. Abenduak 18-30.

PLENTZIA

- ▶ **Cristina Ellacuria-ren margoak.** Erakusketa gela. Abenduaren 15era arte.
- ▶ **Fedor Pauloyukov-en margoak.** Erakusketa gela. Abenduak 16-30.

LEIOA

- ▶ **Abiazioa.** Kultur Leioako erakusgelan. Urtarrilaren 14ra arte.

URDULIZ

- ▶ **Kirolak.** Erakusketa bibliografikoa. Kultur Etxea. Abenduaren 31ra arte.

LEMOIZ

- ▶ **Hire Himalaya.** Armintzako Kultur Etxea. Abenduak 9-17.

ANTZERKIA

LEIOA

- ▶ **Como agua para chocolate.** Ados Teatro. Kultur Leioa. Abenduak 10, barikua. 20:30. Sarrera: 10 euro.
- ▶ **Pinotxo.** Umeentzako antzerkia. Dar-dar produkzioa. Kultur Leioa. Abenduak 12, domeka. 12:00. Sarrera: 3 euro.

ERANDIO

- ▶ **Baltziskueta.** Ipuin kontalaria. Euskara Zerbitzua eta Berbots Erandion Euskaraz. Abenduak 18, zapatua. 12:00.

ZINEMA

GETXO

- ▶ **Pinotxo 3000 K.** Haur Zinema euskaraz. Getxo Antzokia. Abenduak 5, domeka. 12:00; 17:00 eta 19:00. Sarrera: 1,90 euro.

- ▶ **La peligrosa vida de los Altar Boys.** Zine-Kluba. Getxoko III. Komiki azokak antolatuta. Areetako Gran Cinema. Abenduak 9, eguena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.

EL MUNDO AL REVES

AZARORREN 30ETIK ABENDUAREN 11RA ERROMOKO KULTUR ETXEAN

▶ Erakusketak

Komikia barru-barrutik ezagutzeko aukera

Getxoko III. Komiki azokaren inguruan antolatu diren ekitaldien artean bi erakusketa ipini dituzte Algorta eta Erromoko Kultur Etxeetan. Euskadiko ilustradoreen Elkarte Profesionalak "biñeten" munduan barneratzeko aukera itzela eskaintzen du bi erakusketen bitartez, eta nazioarteko ilustratzaile esanguratsuen eskuan istorio iluragarri, barregarri, sineskaitzenakaz gozatzeko aukera dago Getxon. Algortako erakustaretoaren ordutegia 10:00-13:00 eta 18:00-21:30 da, zapatuetan 10:00-13:00, eta Erromokoa 11:00-13:00 eta 18:00-21:00 lanegunetan, eta 10:00-13:00 zapatuetan.

• **Non:** Algorta eta Erromoko Kultur Etxeak • **Noiz:** Abenduaren 11ra arte

- ▶ **Blueberry.** Cinema Paradiso. Azpitiuludun jatorrizko bertsoian. Getxo Antzokia. Eta *El tren de la bruja* film laburra. Abenduak 10, barikua. 22:00. Sarrera: 2,60 euro.

- ▶ **Harry Potter y el prisionero de Azkaban.** Haur Zinema. Getxoko III. Komiki azokak antolatuta. Getxo Antzokia. Abenduak 12, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 1,90 euro.

- ▶ **El coche de pedales.** Zine-Kluba. Getxo Antzokian abenduak 15, eguaztena. Areetako Gran Cinema abenduak 16, eguena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.

- ▶ **Cypher.** Cinema Paradiso. Azpitiuludun jatorrizko bertsoian. Getxo Antzokia. Abenduak 17, barikua. 22:00. Sarrera: 2,60 euro.

- ▶ **Shin Chan: erreskate operazioa.** Haur Zinema euskaraz. Getxo Antzokia. Abenduak 19, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 1,90 euro.

ERANDIO

- ▶ **Laberinto de mentiras.** Iban del Camporen dokumentala. John Berger, Bernardo Atxaga, Gianni Celati, Joaquin Jorda eta Adde Aziz-en hausnarketak batzen ditu. Abenduak 10, barikua. 20:30.

PLENTZIA

- ▶ **El enviado.** Helduentzako zinema. Goñi Portala. Abenduak 10, barikua. 22:00.

- ▶ **Pinocho 3000.** Haurrentzako zinema. Goñi Portala. Abenduak 11,

zapatua. 18:00.

- ▶ **Mulan 2.** Haurrentzako zinema. Goñi Portala. Abenduak 13, astelehena. 11:00.

- ▶ **Fahrenheit 9/11.** Helduentzako zinema. Goñi Portala. Abenduak 17, barikua. 22:00.

- ▶ **La vuelta al Mundo en 80 dias.** Gazteentzako zinema. Goñi Portala. Abenduak 18, zapatua. 18:00.

- ▶ **Spider-man 2.** Gazteentzako zinema. Goñi Portala. Abenduak 20, astelehena. 11:00.

LEIOA

- ▶ **Ouija.** Zine komertziala. Kultur Leioaren Auditoriuma. Abenduak 5, domeka. 20:00. Sarrera: 4 euro.

- ▶ **Melinda y Melinda.** Zine komertziala. Kultur Leioaren Auditoriuma. Abenduak 17, 18, 19. Bariku eta domekan 20:00etan, zapatuan 22:00etan. Sarrera: 4 euro.

- ▶ **Betuz izar artean.** Haur zinema euskaraz. Kultur Leioaren Auditoriuma. Abenduak 5, domeka. 12:00 eta 17:00. Sarrera: 3 euro.

- ▶ **Shin Chan: erreskate operazioa.** Haur zinema euskaraz. Kultur Leioaren Auditoriuma. Abenduak 19, domeka. 12:00 eta 17:00. Sarrera: 3 euro.

- ▶ **La comunidad.** Perseo zineforuma. Alex de la Iglesia zikloa. Kultur Leioaren Auditoriuma. Abenduak 14, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

- ▶ **El dia de la bestia.** Perseo zineforuma. Alex de la Iglesia zikloa. Kultur Leioaren Auditoriuma. Abenduak 21, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
tel. 94 668 15 51
Taxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@euskalnet.net

namaika hideo

zenbat gara elkaria

San Vicente 2
4. solairua
48001
94 423 76 91

1 Kafe Antzokia Bilbo
2 Kafe Antzokia Ondarroatia
3 Ondarroatiko Arrogami Itasoa ostalua
4 Algara konpartisa
5 Zeparrada Gaztegundea
6 Oigelan Umeegunea
7 Elkartearren zerbitzu, ikaslaro eta tailerrak
8 Bakarkako ebres
9 Bilbo Hiria irratia 96.0 Fm
10 Zenbat Gara elkaria

[albuma]



Berango



Algorta



Sopela



Ur biltegiak

Oinarrizko lehengaia da ura, lurrazalaren ia %75a estaltzen du eta gizaki heldu baten gorputz-pisuaren %70a osatzen du. Sua, lurra eta haizeagaz batera gizakiak nekez menderatzen duen elementua da. Hala ere, asmatu egin du gizakiak ura gura modura erabiltzen, nahierara mugatzen. Eskualdean aurkitu ditugun ur biltegiak dituzue argazkiotan. Ura joan eta gero egindakoak ematen badute ere, bete-beteta egon ziren bere garaian. Baina, urak bide handia egin du gaur arte, eta denbora horretan gizakiak elementu hori menderatzeko beste biltegi batzuk eraiki ditu.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Urduliz



Erandio



Leioa



Getxo



Gorliz

Ondo jakina da zelako garrantzia daukan alkoholak gure gizartean. Ezin ezer ospatu edan barik. Baina, legeak onartzen dituenetakoa izanagatik ere, alhohola droga da, eta droga guztiakaz gertatzen den bezala, berau txarto erabiltzeak ondorio kaltegarriak eduki ditzake. Hala, Uribe Kostako herri guztietan (EAEko beste askotan bezalaxe) ikasleei zuzendutako prebentzio-programak erabiltzen dira. Ikastetxeetan ezartzen dira, eta 6 eta 18 urte bitarteko ume eta gazteentzat eginda daude. Helduentzat, berriz, ez dago ia ezer, alor honetan lan egiten duten adituek horiengan ere alkohol kontsumoa arazoa dela onartzen duten arren.

Alkohola

Aurre har diezaiozun

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Eta helduentzat?

Alkohola edatearen arriskuez ohartarazten duten programek nerabeak dauzkate helburu. Eta helduak? Etorkintzako Pedro Espallargasen ustez, gizarteak badauka hipokresia apur bat honekiko: "Gazteei zeozer ez egitea eskatzen diegu, baina gu geu ez gaude prest horixe bera egiteari uzteko".

Helduengana ailegatzea, dena den, zailagoa da. Nerabeak erraz topa daitezke, denak eskolan egoten direlako, baina helduak ez da gauza bera gertatzen, Maite Escribanok gogorarazten duenez. Gehienez ere, "kanpaina orokorrakaz heldu daiteke horiengana, panfleto bidez eta abar" diosku Erandioko teknikariak.

Pedro Espallargasen iritziz, ondo legoke, esaterako, jubilatutako etxeetan eta halakoetan prebentzio-programak ezartzea. Eta tabakoagaz egiten du konparazioa. "Orain osasuna behin eta berriz dakarkigute gogora tabakoa dela-eta, eta dagoeneko hasi dira aipatzen tabako kutxatiletan argazkiak ipiniko ditzutela. Nik, behintzat, ezin dut irudikatu kaltetutako gibela baten argazkia Errioxako ardo botila baten etiketan. Zuk uste duzu Errioxa jatorri-izendapenak horrelakorik onartuko lukeela?".

Uribe Kostako ikastetxeetan alkohol kontsumoaren arriskuaren gaineko prebentzio-programa desberdin bi erabiltzen dira. Bata Eusko Jaurlaritzak sustatutako eta hiru elkarte pribatuk diseinatutako *Arriskua Alkohola* programa da, eta eskualdeko herri guztietan ezartzen da, Getxon eta Leioan izan ezik. Bi horietan, udaletxeek azpikontratutako Etorkintza Fundazioaren programa erabiltzen da. Biak hala biak antzekoak dira, eta oinarriko ideia batean daukate funtsa: gazteei ez zaie beste barik esaten ez dutela edan behar. Horren ordez, alkohol hartzeak dakartzan ondorioen gaineko informazioa ematen zaie, erabakitzen laguntzeko asmoz.

«Etorkintzaren programan, umei txikitatik egiten zaie berba drogaz»

Etorkintzako Pedro Espallargasek azaldu digunez, "gure programa ez da alkoholaren gainekoa bakar-barririk. Ikasleei droga guztiez berba egiten zaie, eta alkohola sustantzia bat gehiago da". Etorkintzak, ikasleakaz zuzenean baino, irakasleakaz egiten du behar, haiek eskolan ekintza batzuk bideratu ditzaten. Programa Lehen nahiz Bigarren Hezkuntzan ezartzen da. Hau da, umei nahiko txikitatik hasten

zaie alkoholaz eta beste droga batzuez berba egiten.

"Prebentzio mota bi bereizten ditugu", dio Espallargasek, "espezifikoa eta ez-espezifikoa". Lehenengoan, eta alkoholari dagokionez, sustantzia horren ezaugarriez, mitoez, estereotipoez... jarduten da. Bigarrenean, berriz, autoestima, taldearen presioari aurre egitea eta halako kontzeptuak lantzen dira. "Ezetz esaten inakasten dugu, hain zuzen".

Debekuzalekeriatik urrunduz

Espallargasek argi uzten du planteamendua ez dela 'drogarik ez' eta kitto: "Nork bere bizitzari buruzko erabakiak hartzeko informazioa eta bitarteko nahikoak

ematen ahalegintzen gara. Ez dugu abstinentzia baztertzen, noski, baina hori gaur egun ia ezinezkoa da".

Maite Escribano Erandioko drogodependentzia teknikariaren berbak ildo beretik doaz: "Aspaldi hasi ginen alboratzen gazteek ezer edan behar ez duten ideia hori. Edaten dutenez gero, jakin dezatela behintzat zertan dabilzan, noiz egin dezaket, noiz ez, zer egin benar duten



Nonahi topa daitekeen droga legala da alkohola

mozkortzen badira...".

Erandioko ikastetxeetan, Uribe Kostako Mankomunitatekoetan bezala, *Arriskua Alkohola* programa darabilte. Eusko Jaurlaritzak sustatzen du, esan bezala, eta berau arduratzen da finantziarioaren zati batez. Beste zatia udalaren eskutik dator.

Escribanok esan digunez, "Arriskua

formazio praktikoa ugari jasotzen duten orritxo batzuk ematen zaizkie (euskarazko bertsioa, bide batez esateko, oso traketsa da, eta batzuetan ulergaitza ere bai).

Erandioko teknikaria pozik ageri da programak emandako atarramenduaz: "Ikasturte bi daroaz martxan, eta bai

«Gazteei ez zaie esaten 'edatea txarra da eta ez duzue egin behar»

Alkohola programan adituak joaten dira ikastetxeetara, eta hiru orduko lan-saioak egiten dituzte. Gazteei alkoholaren arriskua ezagutaraztea da helburua; ez dezatela haren eraginpean autorik gidatu, eta euren burua zaintzen ikas dezatela". Berbaldiagaz batera, ikasleei alkoholaren gaineko in-

ikasleek bai irakasleek oso balorazio ona egin dute orain arte". Lantegietan parte hartzen duten ikasleek, antza, ondo hartzen dituzte bertan esandakoak, "ez zaielako esaten 'edatea txarra da eta ez duzue egin behar'. Alkoholaz modu objektiboan berba egiten zaie, eta eurek ederto deritze horri". m

Alkoholaren mito batzuk

Arriskua Alkohola prebentzio-programa Batxilergoko eta Lanbide Hastapeneko Zentroetan erabiltzeko diseinatu zen. Hamasei urtetik gorakoentzat, beraz. Bertan, pertsona bakoitzari alkoholak zelan eragiten dion azaltzen da, eta beraren inguruan oso zabaldua dauden zenbait mitoren berri ematen da. Izan ere, eta Maite Escribanok adierazi digunez, "lantegietan konturatu egiten gara gazteek okerreko uste ugari daukatela alkoholaz".

«Alkoholaren eraginak ez dira arinago desagertzen kafea edan edo oka egiteagatik»

Uste horietako batzuk oso mozkortuta daudenakaz eduki beharreko jokaeraren gainekoak dira. Jende askok hala uste badu ere, alkoholaren ondorioak ez dira arinago desagertzen kafea edanez, ur hotzaz dutxa hartuz edo oka eginez. Denboraz baino ez dira kentzen, eta beraz pazientzia eduki behar da. Edo gitxiago edan, jakina.

Hona beste mito bat: gazteek edaten dute gehien. Ukaezina da gazteen eta helduen edateko modua desberdina dela, baina Arriskua Alkohola programak argi dio bai batzuen bai besteen kontsumoa osasun publikoko arazoa direla. Arriskuak, baina, ez dira jite berekoak: helduak alkohola hartzeak sortarazitako osasun-arazoak jota hiltzen dira; gazteak, berriz, auto edo moto istripuetan.





ERANDIO, 1993

La franco-ko garabia

Asier Mentxaka

La franco izenaz ezaguna den lantegiko garabi ospetsuaren erretratu eder hau utzi digu Asier Mentxaka argazkilariak. Gezurra dirudien arren *erabili eta botatzeko* kamara txiki eta merke horietako batekin egin zuen.

[berbetan]

Orain dela egun batzuk ireki zen, Erandioko merkatu izandako eraikinean, Jose Luis Zumeta margolari usurbildarraren koadro erakusketa. Zumetak 65 urte dauzka, eta sei daroaz Nafarroako Gaintza herrian bizitzen. Hantxe dauka lantokia, eta hantxe ematen ditu egunero zazpi bat ordu koadroak sortzen, beste batzuek bulegoan edo lantegian ematen dituzten modu berean. Gu geu ez gara arte adituak, eta ezin dizuegu esan –artearen, antza, dena sailkatu behar da– zein estilotan kokatzen den Zumetaren lana; berak ere ez digu gehiegi argitu elkarrizketan. Hori bai, koloreari garrantzi handia ematen diola esan digu, Erandioko merkatu zaharrera beraren artelanak ikustera doan nonor konturatuko den legez. Errege egunera arte edukiko duzue horretarako aukera, gubxi gorabehera. Ez galdu.

Jose Luis Zumeta

kolore festa

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

—Orain dela urte mordoa hasi zinen margotzen...

—Betidanik margotu eta marraztu dut, txiki-txikitatik. Eta hamazortzi urtetik aurrera hasi nintzen margotzen lanbide modura. Gero, hogeirekin, Parisera joan nintzen, eta pixka bat ibili nintzen kanpoan, gauzak ikusten eta...

—Baina ordurako ikasketaren bat ze-neukan eginda, ala autodidakta zara?

—Autodidakta naiz.

—Ikasle ona zinen eskolan?

—Ez, ez, nahiko txarra. Marraztea baino ez zitzaidan gustatzen. Horretan nota oso onak ateratzen nituen, noski. Batean 30 jarri zidaten, eta 10 puntuko azterketa zen. Beraz... Baina bestela nahiko justu.

—Etxean zelan hartu zuten, garai hartan, margotzea eta marraztea gurago izatea ikastea baino?

—Ba, tira, nolabait kurtsoak pasatzen nituen eta... Hamalau urterekin hasi nintzen marrazten, morroi, tailer handi batean, eta han hasi nintzen pintura eza-gutzen: inpresionistak, kubistak eta mundu hori. Afizioa orduan sartu zitzaiz-

dan eta “nire lana hau duk” esan nuen. Eta hamazortzirekin lan hura utzi nuen, pinturan bakarrik aritzeko.

—Ez zen erraza izango hortik bizimodu ateratzea...

—Ez, horretaz bizitzea zaila da. Denbora asko behar du. Beste lan batzuetan aritu nintzen: pankartak pintatzen Donostiako zine festibalerako, ferietarako... Oso gauza zehatzak, astebetekoak, hamabost egunekoak, eta gero berriz pintatzera.

“Parisera joan nintzen garaian hemen oso atzeratua zegoen dena”

—Parisera joan zinela esan duzu. Euskal Herriko giroa ez zen ona artista barentzat?

—Egia esateko, hemen garai hartan ez zegoen ezer. Oso atzeratua zegoen dena. Paisajista batzuk baziren, kostunbristak... eta gauza berriak oso gaizki ikusiak zuden. Aukera bakarra Parisera joatea zen; mundu guztiko zentrua zen, nahiz eta ordurako gainbehera egon.

—Eta zer aurkitu zenuen han? Asko ikasi zenuen?

—Asko ikusi, eta ikusiz gero asko ikasi ere bai. Niri han burua joaten zitzaidan, hango gauzak ikusita. Hemen, pintura mende hasierako pintura hori zen, baina hortik aurrera oso gutxi.

—Estilo bakar batez definitu behar bazintugu, zein estilo izango litzateke hori? Edo estilo askotan ibili zara?

—Estilo askotan, baina noski, estilo ho-

rrek beste eragin asko ditu. Nik neronek ez dakit nola definituko nukeen. Hasiera batean abstrakzio asko egin nuen, baina orain uste dut abstrakzioaren eta figurati-boaren artean nabilela. Zer definizio eman? Ez dakit. Beti kolore askorekin egin dut lan, nahiko inprobisatua, gauzak oso era zuzenean eginez. Baina inpresionista, surrealista... horrelako definizio bat emateko, ezin esan. Hain bide zabal bate-



an zaila da, denetatik hartzen da eta.

—Eboluziorik ere edukiko zenuen, hainbeste urtean...

—Bai, noski, aldaketa handi samarrak, bai, bai, bai... Figuratibo, abstrakto...

—Aldaketa horiek gureta egiten dira, edo berez etortzen dira, konturatu bari...

—Batzutan eboluzio normala da, koardrotik koardroa; pixkanaka aldatuz doa. Baina bestetan intuzio antzeko bat da, irudi batzuk burura etortzen hasten dira, eta orduan aldaketa oso bat-batean etortzen da, eta handia da.

—Teknika inportantea izango da... Noraino?

—Bai, ofizioa, nahi dena egiteko kapazitate hori, gehiegi pentsatu gabe, gauzak burura etorri ahala. Hori oso garrantzitsua da noski. Ofizioa, segurantzia, materialak ondo erabiltzea...

—Eta hori ikasi egiten da edo berez dauka norberak?

—Teknika ikasi egiten da, bai, noski. Ikasten ez dena kolorea da, kolorea berezko gauza da, sena. Ezin da ikasi, edo zaila da. Baina tresnak erabiltzen bai, ikasi egiten da.

—Orain ikusten badituzu hasieran egi-

ten zenituen koadroak, “zer txarra den hau!” pentsatzen duzu?

—(Barre) Bai, batzutan. Bestetan esaten dut: “Hara, ba ez dago gaizki, badu zozzer garai hartarako, hain goiz egiteko eta...”. Denetik. Hasiera batean behinik behin, gauza batzuk suerte hutsez egiten dira, esaten denez, eta beste batzuk oso txarrak.

“Nik neronek ez dakit nola definituko nukeen nire artea”

—Orain Erandion ikusgai dagoena, zer da?

—Azken bi urteko lan gehienak. 30ren bat koadro-edo, batzuk formato handikoak, beste batzuk txikiagoak...

—Urte bi, 30 koadro... Langilea zara?

—Bai, bueno, tailerrean egunero egoten naiz eta joanez gero gauzak egiten dira.

—Asko kostatzen zaizu koadro baterako ideia edukitea?

“Ezin dut hitzekin esplikatu zer adierazi nahi dudun koadro batekin”

—Berehala hasten naiz pintatzen, joan eta berehala. Hasieratik ideia garbi bat

eduki gabe. Gero, egin ahala etortzen dira gauzak, eta argitzen joaten da koadroa.

—Gaur egun artean gauzak oso nahastuta daude eskultura pinturagaz, argazkilaritza, eskulturagaz, eta abar. Hala iruditzen zaizu zuri ere?

—Esango nuke pintura oso gutxi egiten dela gaur egun. Jende gazteak-eta beste teknika batzuk erabiltzen ditu eta pintura

esaten dena —materiala, kolorea...—, ofizio hori galduta dago dagoeneko, jende gaztearengan apenas dago pintorerik. Artistak daude, eta oso onak izango dira, baina ez da pintura, beste gauza bat da, performance eta horrelakoak; pinturatik aparte dauden beste kontzeptu batzuk. Nahasketa hori beti izan da proiektua, dena elkartzea, bai musika, bai pintura, bai eskultura... Nahiko utopiko iruditzen

zait niri, baina bueno, bide bat da.

—Zure hastapenetan Euskal Herriko giroa, arteari dagokionez, nahiko tristea zela esan duzu lehentxoago. Eta orain?

—Gaur egun sozialki pintura nahiko onartuta dago, eta prestigioa dauka. Pinturak, eskulturak, eta denak. Lehen ez zegoen batere errespetorik artistarenganako, eta etorkizuna oso zaila ikusten zen, hortik bizitzea ezinezkotzat jotzen zen eta nahiko mespreziatua zegoen. Horretan zebilena arraro samarra zen, eta abar.

—Galdera tipikoa: zer adierazi gura duzu zeure koadroakaz?

—Niretzat pintura erantzun bat da, munduaren aurrean, gizartearen aurrean... Baina hitzekin esplikatu behar badut, orduan ez dakit zer adierazi nahi dudun koadro batekin. Pintura ezin da hitzekin esplikatu. m



Erandioko merkatuan ikusi daitekeen Zumetaren erakusketaren zabalte eguna

III SALÓN DEL COMIC DE GETXO GETXOKO III. KOMIKI AZOKA

PLAZA DE LA ESTACIÓN
DE LAS ARENAS
AREETA KO GELTOKIKO
PLAZA

ABENDUA
10 - 11 - 12
DICIEMBRE 2004
 HORARIO-ORDUTEGIA
 11.00 - 14.30
 17.00 - 21.00

PRECIO
PREZIOA
1€

**CHARLAS
HITZALDIAK
EXPOSICIONES
ERAKUSKETAK
MESAS REDONDAS
MAHAINGURUAK
VENTA DE CÓMICS
KOMIKI SALMENTA
TALLERES
TAILERRAK**



SARDINA SALTZAILEA

Erandioztarrak

Orrialdeotara *Erandio*, oroimenerako irudiak (1890-1990) argazki liburutik hartu ditugun ale batzuk ekarri ditugu. Liburu hori orain dela hamabost bat urte egin zuten Erandio bihotz-bihotzean daroaten bost lagunek: Juan Gomez, Iñaki Antolin, Aitor Aranaga, Tasio Manzano eta Ramon Gonzalez. Azken ehun urteotan herriko auzoetan egindako argazki bilduma ederra osatu, antolatu eta argitaratu zuten Udalak lagunduta. Beste herri batzuentzako lan eredugarria.


Argazkiak: ***Erandio, oroimenerako irudiak (1890-1990) liburutik hartuak***



MAREA BIZIAK



MORALEJA JAUNA PRENTSA SALTZEN



DANTZARIAK, BEKOA 1917



ERANDIO FUTBOL TALDEAREN JARRITZAIK GARAIPENA OSPATZEN, 1933




BILBOK ERANDIO ANEXIONATU ZUEN EGUNA, 1940



UMOREZKO RALLYA SAN AGUSTINETAN



EUSKAL EZKONTZA, FANO



LUTXANAKO "AURORA" TRAINERUA, 1931



TARTANGAKO LATASARRIAREN INGURUAN



ELKARTEGIAK EGITAMUA

Leku arazorik?

Elkartegietan zure enpresak behar duena daukagu.

Epos
Azaroaren 29tik abenduaren 13ra arte

Informa zaitoz
902 220 004



Azpegi
Sabino Arana 5 - 48013 Bilbo
Tel.: 94 439 39 61
email: a.azpegiuna@azpegiuna.es
www.azpegiuna.net



Bizkaiko Foru
Aldundia
Un est
Instituzio Publiko



Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de
L. Aprob. y Estudios

zineeskola

Oskar Fernandez

Ez eskatu zinemari eman behar ez duena

Zutabetxo honetan inoiz zinemaren kritikari buruz hitz egin dugu. Oraingo honetan eremu horretan, kritikarenean alegia, murgilduko gara, baina beste irizpide bat kontuan harturik. Sarritan entzuten da film batek edo istorio batek errealitatearekin zer ikusirik ez daukala, gauza horiek gertatzen ez direla, ikusitakoa ez dela sinesgarria edo antzeko komentarioak. Eta zalantzarik gabe, filmek ez dute inondik inora errealitatea islatu behar. Ezaugarri hau dokumental edo ereportaiak eskatu behar zaie, baina ez fikziozko proposamenei.

Salbuespenak, esparru guztietan bezala, egon badaude. Hauek zinema historikoari dagozkionak izan daitezke. Film hauei istorioa modu errealean aurkeztea eskatu ahal zaie. Baina bestelako pelikula edo generoetako filmei barne koherentzia eta logika edukitzea baino ezin diegu eskatu. Beraz, filmari buruzko azterketa edo hausnarketa egiten dugunean ez genuke errealitatea abiapuntu hartu behar. Hau gogoan izatea oso zaila egiten zaigu, zineak eguneroko errealitatearekin lotura oso handiak eta sakonak pizten ditu-eta ikusleengan. Zinema aretoa iluntasunak hartzen duenean "magiaz" beteriko bidaia hasten da eta "errealitate" ezagun antzeko batean murgiltzen gara inolako ahalegin berezirik egin gabe. Filmen ahalmen handi honek, pantaila berriro zuria gelditzen denean ere, nahi gabe ikusitakoa errealitatearekin alderatzera eramango gaitu. Baina filmak aztertzeko gure errealitateatik hartutako ezagupenetik abiatu beharko ginagake, eta jakina, dokumentalei eta erreportaiak dagokienez ez genieke filmei eskatu behar. 4

Euskal ekoizpenak

Ez dira gurabeste, baina badira laster euskaraz pantailaratuko diren filmak

Zinema euskaldunaren arbola ez da urtero loratzen den horietakoa, baina badirudi urte amaiera honek eta datorren urteko udaberriak gaixo dagoen zuhaitza suspertuko dutela. Izan ere, euskarazko bi film aurkeztu dituzte dagoeneko, eta beste lauzpabost 2005eko udaberrian egongo dira pantaila handian.

Urteko hilabeterik antzuen dirudien honetan, era berean jaiotzak ospatzen ohitura dago. Euskal zinemak ere badauka zer ospatua. Besteak beste, dagoeneko aurkeztu diren umeentzako hiru film

«Supertramps; Ilargiaren sekretua; Aupa Etxebeste; Kutsidazu bidea, Ixabel...»

ikusitako izango dira euskaraz Gabonetan: *Supertramps* (Irusoin, Dibulitooon Studio eta Barton Films-ek ekoiztua), *George and the Dragon* (Barton Films), eta *Ilargiaren sekretua* (Hik Hasi heziketarako aldizkariak ekoiztua).

Euskal literaturatik abiatuta pantaila handiraino bidea egingo dute beste hiru istorioik: *Obabakoak* (Bernardo Atxaga), *Kutsidazu bidea, Ixabel* (Joxean Sagastizabal) *SPrako tranbia* (Unai Eloorriaga). Hurrenez hurren, film horiek zu-




Supertramps pelikularen kartela

zenduko dituzten zinemagileak hauek dira: Montxo Armendariz, Mireia Gabilondo eta Fernando Bernues, eta Aitzol Aramaio.

Bestalde, ezin ahaztu, Telmo Esnal eta Asier Altunak zuzendutako *Aupa Etxebeste* filma. Amaitzeko, gogoratu film horiek guztiak udaberri-uda aldera ikusi ahal izango ditugula pantaila handian, eta euskaraz. Zain egongo gara. m

Ez galdu > "Cypher"

• Non: Getxo Antzokia • Noiz: abenduak 17, barikua • Ordua: 19:30 • Zinema Paradiso



Ameriketako Estatu Batuetan egindako filma da hau, 2002. urtean hain zuzen ere. Zientzia-fikzio generokoa da. Sitges-eko Zinemaldian estrenatu zen eta protagonistaren papera antzeztzen duen aktoreak, Jeremy Northam-ek, aktorerik onenaren saria jaso zuen. Bruselako Zinemaldian urrezko belea, epai mahiaren saria eta aktorerik onenarenaren sariak ere eskuratu zituen. *Cypher* filmaren zuzendaria, Vincenzo Natali kanadiarra da eta hau bere bigarren film luzea da -lehenengoa *Cube* (1997) izan zen. *Cypher*-en protagonista langabezian dagoen kontablea da. Bere bikotekidearekin harremanak oso txarto doaz eta amets bakarra du: bere bizitza latza eta grisa goitik behera aldatzea. Hau lortzeko nazioarteko enpresa handi batean lan egiten hasiko da. Bere bizitza aldatzea lortuko du, zein erako enpresan lanean hasi den jakitean sorpresa handia hartuko du.

Durangoko azoka

60 disko berri aurkeztuko dira eta egunero egingo dira kontzertuak Plateruena Kafe Antzokian

Informazio eguneratua: www.durangokoazoka.com eta www.plateruena.com. Argazkian, Bide Erzean taldea

Euskal Liburu eta Diskoen azoka daukate topagune euskal kultur ekoizpenen azken nobedadeek. Aurten 39. edizioa beteko du Durangoko azokak, eta dagoeneko ederto amaituta dagoen Landako eraikinak abenduaren 4an zabalduko ditu atek, 5 egunez euskal kulturaren eta zaleen bilgune izateko. Euskal diskoetxeen mahaietan 60 disko berri egongo dira, asko izanda ere, iaz baino gutxiago. Nobedadeen artean honakoak aipa daitezke: Gaztelupeko Hotsak-en mahaietan Batgeho, Txuma Murugarren edota Bide Ertzean-en azken lanak; Elkarren salmahaietan

Alboka, Gari, Benito Lertxundi (hasierako diskografia dena) edota *Imanol in Memoriam* lako diskoak; Gor-ek Kerobia edota Tocamasen lanak aurkeztuko ditu; Metak-en eskutik helduko dira Zein?, Sagarroi, Hiru Truku, Fermin Muguruza, edota PiLT-ren eskaintza berriak; eta Oihukaren erakusmahaietan Kauta, Urgabe, DJ Axular edota Txapelpunk taldeen lan berriak egongo dira. Den-denak, eta beste hainbeste Durangoko Euskal Liburu eta Diskoen azokan. Bestalde, atek zabaldu berri dituen Plateruena Kafe Antzokiak hainbat kontzertu antolatu ditu egun horietarako. m

diskoak

The delivery man
Elvis Costello
Universal



Costello-k ondoen egiten dakien gubietan du (pop abestiak), eta nahiago ditu poz gehiago ematen dizkion esperimentuak; horrela, *The delivery man* disko hau beste batez argitaratu du aldi berean: *Il sogno* (musika sinfonikoa balet batentzat). Baina goi-mailako kalitatezko 13 abesti hauek entzun ostean, batek onartzen ditu gure Elvis-en gurari horiek. Istorio gogorak country, soul eta new wave estalkiaz.

How to dismantle...
U2
Universal



U2 itzuli da... hasierara. Kostatu zaie (uztailean jatorrizko zintak galdu zituzten Nizan), baina hilaren 22tik aurrera salgai daukagu talde irlandararen disko berria. Kaleratzen duten hamaikagarrena da, eta hamaika abesti dauzka. Bono abeslariari jaramon egin behar badiogu, U2-ren lehenengo rock and rolleko disko da; izan ere, amorrut beteta datorri-gu laukotea. Steve Lillywhite izan dute ekoizle.

Esperantziari leiho bat
Oskarbi
Elkar



Oskarbiok 60ko hamarkadan hasi ziren abesten eta diskoak kaleratzen (guztira, sei disko grabatu dituzte), eta *Ez dok amairu* talde mitikoan ere parte hartu zuten bide berriak irekita. Euskal Herriko musikaren historian garrantzitsua izan den talde honen 34 abesti ezagun eta esanguratsu biltzen ditu CD bikoitz honak: *Txorietan buruzagi*, *Baratzako pikoak*, *Pello Joxepe*, *Xoxoa...*

MEM jaialdia >

Abenduaren 18ra arte



Orain dela pare bat urte jaio zen Musica Ex Machina jaialdia Bilbo aldeko bazterrek astintzeko asmoz. Musika, dantza, zinema, artea eta

bestelako adierazpide garaikideei Bilboko atek pare pare zabaltzen dizkien nazioarteko jaialdia azaroaren 24an aurkeztu zuten, eta abenduaren 18ra arte hitzaldi, mahainguru, erakusketa, ikuskizun, bideo proiektzio, zine, net-art, bideo jokeyak, DJak, kontzertuak eta abarrez beteko ditu Bilboko kaleak. Besteak beste hurrengo lekuetan egingo dira ekitaldiak: Bilborock, Kafe Antzokia, La Haceria, Abisal Hernani, Abisal Urazurutia, Bullitt eta Bidebarrieta kulturgunea.

www.musicaxmachina.com

Agurra >

Alaitz eta Maider

Urte amaieragaz batera agur esango diote Alaitzek eta Maiderrek bikote ibilbideari, bakoitzak bere bideari ekingo dio. Euskal Herriko eta urrutiko plazak dantzan ipini eta gero, trikitixa eta panderoak kea dariela ibili ostean, ahotsik goxoenaz haimaika liluratu ondoren, agur esateko momentua heldu zaiela erabaki dute. 14 urtegar irten ziren lehenengoz plazara, 21 urte zeuzkatela grabatu zuten lehenengo diskoa (*Alaitz eta Maider*, 1997), eta 14 urtez jardun dute elkarrengatik. Bidean beste bi disko plazaratu dituzte *Inshala* (1999) eta *Auskalo* (2002). Azken kontzertuak abendurako iragarri dituzte.

esaterikbadut

Esti Ezkerra

Egunerokoa (xxviii)

Gaztaina saltzailea

Urtero, abendua iristearekin batera, labea daraman gurditxoa hartu eta tipi-ttapa tipi-ttapa plazarantz abiatzen da. Bertara heldu eta inguruari luze erreparatu ostean, bere tokirantz abiatzen da, inolako seinalerik ageri ez bada ere –are gutxiago eremu hori bere jabegoa dela adierazten duenik–, toki hori berea baita, edo, behintzat, berea balitz bezala sentitzen du, urte asko baitira usadio bera errepikatzen duela, gehiegi akaso, eta kontxo, batek ere merezi du pribilegioren bat edo beste izatea, aparteko pribilegioa ez bada ere; izan ere, esango didazu zer pribilegio klase den urtero, hotza iristearekin batera, kalean jartzea gaztaina erreka saltzen, sos apur batzuen truke gainera; hemendik etekinik ateratzen dudala uste duena oker dago, ezta ikatza ordaintzeko ere, eskerrak gaztainak etxekoak ditugun, baina jendeari bost axola zaio, nahiz eta ni saiatzen naizen etxeko gaztainen eta kanpotik ekarritakoen arteko aldea azaltzen –hitz egiteko aukera ematen didatenean gertatzen da hori, jakina–, ez didate kasurik egiten, behiak trenari bezala begiratzen didate, batzuek onartu ere egiten dute umeez gusturago jango lituzketela litxarkeriak, baina badakizu, gabonetan gaude, tradizioa da gaztainak jatea, eta tira, zer egingo diogu ba, tori buelta, mila esker, beste batera arte, bai, Jainkoak hala nahi badu bihar ere hementxe izango gara, gurditxoa bildu eta tipi-ttapa tipi-ttapa badoa etxera, John Bergerren nobela batetik aterata dirudien gaztaina saltzailea. 4

Durangoko literatur uzta

Gure letren topagune

bihurtuko da Durango eta ohi bezala nobedade ugari izango dira

Poesia liburuak eleberriak adina izango dira ia-ia. Eta idazkuntzan murgildu diren idazle berri zenbait ere poesiaren magalean abiatuko dira, Jon Aiastui *Biolinaren jatorria* (Elkar), Xabi Borda *Birika zatiak* (Susa) eta Gotzon Barandiaran *Arrakalak* (Susa), esaterako. Azken urteotan zendu diren bi idazleren poemarioak ere ezagutaraziko dira: Andolin Eguzkitzaren *Arimaren ondoko ezkien artetik ibilki* (Susa) eta Bitoriano Gandiagaren *Adio* (Elkar). Horiez gain, Galeuscaren euskal, kataluniar eta galiziar idazleen topagunearen ondorio, hiru hizkuntzetako poemen lagin bat argitaratu du Pamielak. Narrazio arlo-

«Hausnarketarako eta eztabaidarako gai ugari ere eskainiko dituzte euskal idazleek»

an, Durangon izango ditugu Itxaro Bordaren *Zeruetako erresuma* (Susa) eta Pablo Sastrenen *Elurretan hotsak* (Susa), zein Edorta Jimenezen, Felipe Juaristiren eta Joan Mari Irigoienaren azken lanak. Irigoienek, hain zuzen, futbolearen aritu izan zeneko garaia ekarri ditu gogora *Odolean neraman* (Elkar) nobelan.

Nobelarekin jarraituz, Xabier eta

Martin Etxeberria anaiek road-movie tanke-rako eleberria idatzi dute elkarrekin: *Itxoidazu Café de Passy-n*. Egile bat baino gehiago elkartzen dituen beste libururik ere izango da udazken honetan, joan den hamarkadan kaleraturiko ipuinen antologia *Ipuin izugarriak* (Elkar), esaterako. Bestetik, lehenengo aldia ardatz harturik ipuin erotikoen bilduma egin du Juan Martin Elexpuruk Txalapartarako.

Udazken honetan hausnarketarako eta eztabaidarako gai ugari eskainiko dituzte euskal idazleek: Euskararen inguruan Txillardegiaren artikuluen bilduma eta komunikazio esparrua trinkotzeko ahaleginei buruz Aitor Zuberogoitiak egin duena argitaratu ditu Elkarrek. Gizarteaz orokor-rago hausnartu dute Bixente Serrano Izkok *Bakezale gerlari horiek* (Pamiela) eta Asier Blasek *Atzoko eta gaurko harresiak* (Txalaparta). Beren gogoetak plazaratuko dituzte, halaber, Filipe Bidart euskal presoak *Bakartasunaz bi hitz* (Txalaparta) eta Pako Aristik *Gauza txikien liburua* (Erein) lanetan.

Eta jakina, haur eta gaztetxoentzat ere hamaika nobedade egongo dira, haien artean Juan Kruz Igerabidek zein Mariasun Landak idatziriko azken ipuinak. m

liburuak



Itzalak
Iban Zaldúa
Erein

Idazle donostiarren seigarren ipuin-bilduma honek (euskarazko laugarrena) beharbada aurrekoak baino tonu goibelagoa dauka. Bildutako 37 ipuinetan liburu askoren oihartzunak daude. Zalduaren berriena izenbururik gabeko bost ataletan banatuta dago, eta bakoitzaren hasieran Itzalak deritzon narrazio bat aurki dezake irakurleak.



Gauza txikien liburua
Pako Aristi
Erein

Narrazio laburrak, olerkiak, gogoetak eta bidaia kronikak, besteak beste, irakur daitezke Urrestillako idazlearen liburu berri honetan. Azken urteotan idatzitako testuak dira, eta Aristi gutxienezko batasun bat ematen saiatu da. Bizitzari oso lotuta ei dago liburua, eta lehenengo testuan dioenez, "isilunez beterik eta narrazio etenez josia dago".

Aldizkaria >

Euskararen berripapera

150. zenbakia

kaleratu du pasadan azaroan euskararen gaineko berriak plazaratzen dituen Jaurlaritzaren boletín txikiak

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordetzak argitaratzen duen Euskararen Berripaperak 150. zenbakia plazaratu du orain dela gutxi, azaroari dagokion alea, hain zuzen. Euskararen Berripapera hilaletaria da eta etxean doan jasotzen dute harpidedunek.

Euskarari buruzko informazioa ematen duen boletín txikia (4 orrialde) 1991ko abenduan jaio zen, beraz, euskararen gaine-

«Berripapera etxean doan jasotzeko aukera dago, hala eskatuz gero»

ko berriak zabaltzen 14 urte beteko ditu hil honetan. Berripapera hiru hizkuntzatan argitaratzen da, euskaraz gain, gazteleraz eta ingelesez ere bai.

Bestalde, herritar orok doan jaso dezake bere etxean Jaurlaritzaren boletín txikia, eta eskaera hori egiteko hiru aukera daude: lehenengoa, eskaera gutun bitartez egitea (Hizkuntza Politikarako sailburuordetza, Donostia 1/ 01010 Gasteiz); bigarrena, telefono honetara deituz 945 01 81 16; eta azkena, hurrengo posta elektronikora mezu bat bidaliz: I-Sosoaga@ej-gv.es.



Berripapera aldizkariaren 150 zenbakia

Azkenik, Eusko Jaurlaritzako sailburuordezak plazaratzen duen Euskararen Berripaperaren zenbaki denak sarean daude, 1991n kaleratutako 0 zenbakitik hasi eta azaroan argitaratutako 150. zenbakira arte, eta laster abenduari dagokiona (151.a) ere irakurri ahal izango da. Beraz, euskararen inguruko albisteak etxean doan jaso edo aspaldiko edota aurreko aleak eskuratu gura izanez gero badakizue nora jo. m

www.euskadi.net/euskara_berripapera

jaia >

Gorliz Irratia

Azaroaren 19an bat egin zuten Gorliz Irratiko esatari, DJ eta zaleek. Zaleen aurrean esatariak eta DJak aurkezteko helburuagaz, eta horren albotik entzuleei zuzeneko musika jaialdi bat eskaintzeko asmoagaz antolatu zuten Gorliz Irratikoek jaia. Irratiaren programazioan berrikuntza handirik ez omen zuten aurkeztu, alabaina, iraitetik eta urritik uhinen jabe diren saioek eta "Las cuentas claras" irratsaio jaiaberriak arreta berezia izan zutela zalantzarik ez dago. Bestalde, Gorliz Irratiak Gabonetako loteria dauka eta Gorlizko Kultur Etxean, Gorlizko osasun zentro ondoan dagoen kioskoan, Elai tabernan (Sopelana) eta irratiaren bertan eskura daiteke.

Gorliz Irratia: 107.8 fm



aldizkaria etxean
jaso nahi baduzu
94 491 13 37

UK Urbe Kostako Aldizkaria 171 posta kuba
Armetzi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Gebo
uk@aldizkaria.bz / tel.: 94 491 13 37 / fax: 94 491 58 31

uhinakFM

- Getxo Irratia87.6
- Radio Euskadi92.4
- Euskadi Gaztea94.7
- Bilbo Hiria Irratia96.0
- Tas-Tas Irratia97.0
- eitb irratia100.1
- Bizkaia Irratia102.6
- Koska Irratia108.0
- Euskadi Irratia104.4
- Gorliz Irratia107.8

Getxoko Andra Mari
Zerbitzu Estazioa

etxera
eroaten dizugu
gasoleoa

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km
Getxo / Tel: 94 430 15 00

irabazi UKrekin

MUGI
FISIOTERAPIA ZENTRUA
× Tendinitis × Esgintzeak ×
× Erreuma × Kiroleko

deitzen duenak
masaje bat debalde
irabaziko du!!

94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz

Mendieta 2, SOPELA 6 1 7 6 7

Sarrerak
debalde!

abenduak 2 osteguna:

BIDE ERTZEAN
4 sarrera

abenduak 16 osteguna:

HIRUTRUKU
4 sarrera

94 49113 37

UK-ra deitzen dutenen artean sarrerak zozketatuko ditugu

[sarean]

GPSan Gipuzkoa aitzindari

Biderik egokiena aurkitzeko edota **perretxikoak topatzeko sistema** Aldundiaren eskutik

GPS sistemarekin non gauden nonahi eta noiznahi jakin dezakegu. Zelan? Momentu oro, Lurrari biraka 24 satelite daude eta bakoitzak bere irrati seinale berezia igortzen du. Ehun euro inguru balio duen hargailu batekin edonork seinale horiek jaso (hiru seinale jasotze-

ko sistema hori. Antena horiei esker, gure hargailuak satelite desberdinetatik datorren informazioa lur finkotik datorkigun irrati seinalearekin alderatzea posible da, eta horrela, izan daitezkeen zehaztasun faltak saihestu ahal izango dira.

«**Hargailu batek 100 euro inguru baino ez du balio gaur egun»**

arekin nahikoa da, baina zenbat eta gehiago izan hobeto), modu automatikoan prozesatu eta bere kokapen zehatza lurrizalean jakin dezake: berdin dio Pozozabalen zein Gobiko basamortuan egon.

Gipuzkoako Foru Aldundia osotzen dabil antena berriak jarri estatubatuarrek orain dela 20 urte martxan ipinita-

ko sistema hori. Antena horiei esker, gure hargailuak satelite desberdinetatik datorren informazioa lur finkotik datorkigun irrati seinalearekin alderatzea posible da, eta horrela, izan daitezkeen zehaztasun faltak saihestu ahal izango dira. Eta hau guztia zertarako? Bada, adibidez, orain auto askotan ikusten diren nabigazio sistemak abian jartzeko. GPS eta mapa elektronikoko batekin gure herrian egongo bagina bezala edonongo errepide ezezagunean ibil gaitezke. Sistema hau itsasontzien zein hegazkinen kokapena jakiteko oso erabilgarria ere bada. Eta, jakina, beste erabilpen asko ere baditu. Esaterako, aurten perretxikoak non agertu diren apuntatu GPS batekin lagunduta eta datorren urtean oso erraz aurkituko duzu leku zehatz hori eta ostera fruitu goxo jaso. m

webgida

IGUAZÚ ALDIZKARIA

><http://revistaiguazu.blogspot.com>


Gasteiztar batek egindako blog kultural bitxia. Bertan, Nuria Sebastianek, Euskal Herriko Unibertsitateak babesten duen Iguazu aldizkariaren zuzendariak, bere gogoetak plazaratu ditu. Webgunean "Kultura eta Literatura artisaun aldizkaria" definitutako argitalpenaren berriak ere aurki daitezke. Oso gomendagarria.

GAZTEENTZAKO

>www.matraka.info

Gazteentzako prentsa gehigarri berria plazaratu du Berria egunkariak: Matraka. Aldi berean interneten webgunea ere ipini dute. Den-dena, euskara hutsean, jakina.

Sarean aurkitu ditugu >



Ane Gabarain > aktorea

“Urteak daramatzagu lanean eta, hobeto ala okerrago, lortzen dugu honetaz bizitzea”



“Gure hobya lanbide egin dugu eta horretaz bizitzeko suertea baldin badugu, nahiko lorpen handia da”

laz Ramón Barearen *El coche de pedales* pelikulan parte hartu zuen, eta aurten Agatha Christieren *La ratonera* antzezlana dabil han-hemenka. Hala ere, Ane Gabarain donostiar aktore eskarmentudunak tartetxo bat eduki du abenduaren 1ean Getxora etorri eta beste hiru aktoregaz batera umorez gainezkako bakarrizketa-sorta opesteko. Bitartean, berba apurtxu bat egin gura izan dugu beragaz.

—Aktoreek pentsatuko duzue kazetariok beti galdera berdinak egiten dizkizuegula. “Zer gurago, antzerkia ala zinea”, eta abar...

—Bai, hala da (Barre)...

—...bada, zer gustatuko litzaizuke zuri kazetari batek galdetzea?

—Begira, galdera ona da hori! (Barre). Zer gustatuko litzaidekeen galdetzea? Ez dakit, ez dakit, hainbat gauza. (Pentsatu eta gero) Ea jarraitzeko gogoia daukadan. Behar bada neure buruari animo emateko ere.

—Eta badaukazu jarraitzeko gogoia?

—Bai. Tira, ez da erraza, baina... Tarteka bai, tarteka ez. Baina urteak daramatzagu lanean eta, hobeto ala okerrago, lortzen dugu honetaz bizitzea eta hau egin dugu gure lanbide. Gure hobya lanbide egin dugu eta gainera horretaz bizitzeko suertea baldin badugu, nahiko lorpen handia da.

—Jendeak, kanpotik ikusita, “zein polita den aktoreen lana”, pentsatuko du...

—Alde batetik oso polita da, baina badu bere alderdi gorrak. Badakigu hiru hilabe-

tez, edo sei hilabetez asko jota, edukiko dugula lana, baina hortik aurrera ez dakigu zer pasatuko den. Edo, adibidez, antzerkia egitean asko ibili behar da errepidean. Ordu mordoia pasatzen dugu furgonetan, etxetik kanpo... Alderdi hori da gogorrena, batez ere seme-alabak dauzkatenentzat. Ez da erraza. Baina bere ordaina dauka. Bokazioa behar da, bestela...

—Ordu asko ematen duzue aktoreek ikasten?

—Antzezlaren arabera. Klasiko bat baldin bada edota testua bertsotan badago... Ordu

«**Antzezlana bertan behera uzteko hiltorian egon behar dugu, bestela aurrera»**

asko eskatzen du. Beste batzuk errazagoak dira. Baina ez da inportantea, nire ustez.

—Hala ere, inork ikusten ez duen lana da, bakardadean egiten duzuen...

—Bai, baina disiplina kontua besterik ez da, beste edozer ikastea bezala. Bakoitzak bere metodoa du.

—Eta zein da zurea?

—Niri ondo doakit idaztea. Idatzi egiten dut testua, eta idatzi ahala ondo sartzen zait buruan. Beste batzuek grabatu egiten dute, eta beste batzuk kaletik doaz eskuko telefonoarekin, testua esanez, disimuluan, eta inor ez da konturatzen testua esaten ari direla (Barre)... Hori ere sistema ona da.

—Aspergarria izan daiteke antzezlana bera behin eta berriz errepikatzea?


—Batuetan gerta liteke, egun txarra daukatzula, buruko mina, gripea... Badakizu, antzezlana bertan behera uzteko hiltorian egon behar dugu, bestela aurrera. Eta halako gorpuzaldiarekin harrapatzen bazaitu, eta emanaldi asko egin badituzu, aspertuta amai dezakezu. Baina normalean ez. m

Getxoko literatur gida


GETXO · LITERATURA · EUSKARA

GETXOZTARREK EUSKARAZ IDATZITAKO LITERATUR LANAK BILTZEN DITUEN GIDA.


Getxon. Sei idazle. Sei kokaleku. Irakurketarako zenbait proposamen. Poesia eta narratiba. Fantasia eta errealismoa. Abentura. Amedioa eta desamedioa. Umorea. Intriga. Literaturaren magia. Haur, gazte zein helduentzat.




Laura Mintegi




Unai Elorriaga




Kepa Altonaga




Iñaki Frieria



Joseba Santxo




Amaia Iturbide



Xabier Paya

GABONETAN DPARITU GETXOKO LITERATURA



Esakere > “Inorena ikusteko argitsu, berea ikusteko itsu”



Danok yausten gara horretan, ez dago dudarik, baia argi dago batzuk gaitasun itzela daukela garikon begin galtzu ikusteko eta norberan begiko hage ez ikusteko. Edozeiñek esango leuke espilluk ondiño asmatu barik dagozela, hainbeste jente bizi gara eta, norberan buru zelako dan ikusi barik (eta hau idazten daunek, zeozer agirin badeko, horitxe da, ba: beran buru!).

Esakeratxu hau G. Garaten 'Atsotitzak' bildumetik atara dogu.

Gorka Vazquez

Gureberbakere50

ZELAN ESAN

Eretxi eskatuteko eta emoteko

Testua: **Xabi Bilbao**

Zelan eskatu eritxi

- Zer deritxozu honeri/horreri/hari?
- Zelan ikusten dozu hori?
- Zer diñozu honen/horren/han ganera?
- Yakin gure neuke zure eretxi zein dan.
- Zer? Zelan dau hau zuretzako?

- Ez dotset eritxiten ondo.
- Eztakit ba, gurago dot ez esan.
- Ez daust egiten **grazirik**.
- Ezin dot **ikusi bere** eiñ (egin)!
- Kenduzu** nire aurretik hori!

Adibidek

—Zer, zelan dau hori ardautxu? Neuk iñeko da, mahatsa neuk zapaldute ta dana.
—Zure ñekaz? Ba, óndiño ezot proba...
Gúrau dot gero edan... etxen... lasáiau... bai.

—Korbáte ondo siketu barik egon da ta mikrondasen sartu dotzut apur beten. Zélan lotu da?
—Eztai txarto, baia óllasko usiñe koyu dau apur bet.

—Háva, átzeko gurpillek ondo agára daien UK záharrakaz betetu dot maletéru. Zer deritxozu?
—Májo! Zéozetanako ondo etorri ber (behar) hori aldízkeri demónentru!

Eritxi ona emoteko

- Ez dau (dago) txarto / ez da txarra.
- Ondo/májo/ederto dau!
- Ondo deritxot.
- Ondo eritxiten dotset horreri.
- Asko/sáno gustaten yat/dast.
- Itzel gustaten dast.

Eritxi txarra emoteko

- Ez dau lar ondo.
- Nahiko txarto dau / Nahiko txarra da.
- Ez deritxot ondo.

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 4302345

Algorta

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Erbia

saltsan

Erbiaren okela apur bat gogorra da, biguntzeko sartu uretan ordu bi. Gero okela zatiak zapi batekin sikatu, gatz-pipertu, irinetik pasatu eta oliba olioagaz *majestian apur bat* frijitu. Okela baztertu eta olio berean tipula, azenaoria, piper berdea eta porrua ondo txikituta gehitu eta egin. Ondoren erbia atzera sartu lapikoan eta koñakaz flanbeatu. Basoerdi ardo beltz eta beste erdi ardo zuri, okela salda (edo ur apur bat) eta txokolate zatitxo bat gehitu. Majestia itxi eta 20-25 minututan eginda egongo da. Amaitzeko barazkiak pasapuretik pasatu. Kitto. On egin! ^m

osagaiak (lau lagunentzat)
erbi bat • hiru tipula • azenaoria bi • porru bat • piper berde bi
berakatzatza • koñaka • ardo zuria eta beltza • txokolata



itsaso arana / jolastoki-koa

Prezio

egokian

Ideia hori oso zabaldua badago ere, ardo onek ez dute beti zertan garesti izan behar. Oso prezio egokian ardo bikainak aurki daitezke bilatzen jakinez gero. Ondoko hauek horren adibide baino ez dira. ^m

1,50 euro baino gutxiago

- D'orduño, 2001 (Errioxa, gaztea)

1,50 eta 2,50 euro artean

- Aradón, 2002 (Errioxa, gaztea)
- Gómez de Segura, 2002 (Errioxa, gaztea)
- Lavaye, 2002 (Errioxa, gaztea)
- Muro, 2002 (Errioxa, gaztea)

4,50 eta 10 euro artean

- Azpilicueta, 2000 (Errioxa, krintza)
- Muga, 2002 (Errioxa, zuria)
- Barzagoso, 97 (Errioxa, erresermba)
- Ramón Bilbao, 2001 (Errioxa, krintza)
- Viña Izadi, 2000 (Errioxa, krintza)

La landa jatetxea

Menu merkeak eta kalitatezkoak Algortan



Irantzu Rola, Marisol Agirremota eta Juan Ignacio Rola, La landa jatetxearen jabeak

Algortako Konporte auzoan taberna eza-guna da oso *La landa*. Jatetxea zaharra bada ere, joan den maiatzean Rola-Agirremota familiak hartu zuen negozioaren ardura. Bertan ohiko pintxoek gain astelehenetik barikura seguru asko eskualdeko eguneko menurik merkeen eta kalitate handienetakoak jan daitezke (7 euro). Sukaldaria Alex Rodriguez da, hostalaritzan eskarmentu handiko gizona. Zer eskaintzen duen galdetu diogunean "etxeko betiko euskal platerak" prestatzen dituela esan digu eta sustraietara eutsi behar diegula azpimarratu. Bera autodidakta da sukalde kontu hauetan eta menuan plater bat ipini aurretik beti etxean egiten duela argitu digu. Batez ere auzotarrak eta beharginak bezero dituen *La lan-*

dan sorpresa atseginak aurkituko ditu hara bazkaltzera hurbiltzen denak. Esaterako, indaba oso gozoak egoten dira egunero menuan. Gainera, makailua Bizkaiko erara, txarripatak... sarritan dasta daitezke jatetxe honetan, hau da, oro har eguneko menu hain merkeetan nekez aurki daitezkeen gutuziak. Barikuetan jende asko biltzen da *La landara*, izan ere arrakasta handia du Alexek bariku guztietan egiten duen paellak (txirlak, mojojoiak, ganbak... denetarik du). Esandakoa, Algortan kalitatezko menu merkea jan gura izanez gero *La landa* aukera ona da. ^m

LA LANDA
Konporte 17, Algorta
Menua: 7 euro / Telefonoa: 94 460 38 74

KONTXI
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

*Adituak gara,
Urdaiazpiko Iberiko, Pate
eta Gaztaietan!!*

GABONETAN

- Tolosako *Eceiza* turroia
- Bilboko Correos kaleko turroia (Eladio Ibañez Coloma)

zorionak eta urteberri on!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93



Taberna Berri

Sarikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

*herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!*

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

eleizalde
taberna
eguneko menua

Kresaltxu 13
T: 94 602 14 33 - ERROMO-GETXO

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behea eskalera. ALGORTA 94 94 430 76

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Aritluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

OLATXO
altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 Juan Bautista Zabala, 5
AREETA ALGORTA
T. : 94 464 89 94 T. : 94 491 13 94

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta askotarikoak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

<p>URA t</p> <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Esaten diren berbakaz kontu handia izan behar da. Inoiz ez dakigu nork entzungo dituen. Jendea mintzeko trebezia handia daukazu azken aldian; ahoa ixtea komeni zaizu.</p>	<p>OTSOA t</p> <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Gezurren bat esateagatik handitu al zaizu sudurra? Jokabide horregaz ez zara oso urrun joango. Ordaindu barik joan zinetela denek dakite, baina konturatu barik egin zenutela, ordea, ez.</p>	<p>ADARRA t</p> <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Zer esan jakin barik geratuz gero, gogoratu abesti hartaz. Bere bihotza hunkituko duzu, duda barik. Hori da nahaspila logelan daukazuna! Badaukazu beharra bakoitza sailkatzen eta banatzen.</p>
<p>AITZURRA t</p> <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Eskerrak gurason etexera guxitan joaten zaren... Beraiek jaten ez dituzun bitartean... Esan zenizkion astakeria haiek guztiak esanda, barkamena lortzea nahiko zaila izango duzu.</p>	<p>HOSTOA t</p> <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Aretoa arratoi bat dagoela esaten baduzu, berehala libratuko dira jesarlekuak. Amantala eta txano zuria janzteak ez zaitu sukaldari bihurtzen, sukaldia ezagutzea ere oso garrantzitsua izaten da.</p>	<p>EGUZKIA t</p> <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Olentzerori zer eskatu ez dakizu? Oraindik denbora asko daukazu bata ala bestea aukeratzeko. Hiru eguneko bizarragaz interesgarri eta erakar-garriago zaudela esaten dute...</p>
<p>GARIA t</p> <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Ez dago begiratu beharrik ere nor ailegatu den jakiteko: zure aurpegi gorritua ikustea nahikoa da. Oraindik ez zarela joan medikua ikustera? Amatek eta aitatek eskutik eroan behar al zaituzte?</p>	<p>LASTOA t</p> <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Ez daukazu pazientzia gutxi. Jende asko zure kasuan amore emanda izango litzateke. Lurrikara batek ere ez luke utziko zure logela egoera tamalgarri horretan.</p>	<p>IRATZEA t</p> <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Hobe duzu paperezkoak erabiltzea, mairidira bat poltsikoan eroatea ez da eta batere eroso. Bisitaxoren bat egin beharko diozu, ala? A ze poza hartuko duen zu han ikustean.</p>
<p>META t</p> <p>(Irailak 17 urriak 16) Arropa behar duzula? Hilabeteetan garbitu barik ere oraindik janzteko izango zenuke eta! Ikusitakoak ikusi eta gero, ezerk ez zaituela harrituko? Nik ez nuke eskuak sutan jarriko.</p>	<p>HAZIA t</p> <p>(Urriak 17 azaroak 15) Lehoia bezain egoskorra zara askotan; hala ere, horrek ez zaitu lehoiaren txima luzeak izatera behartzen. Aterkia ondo zaindu bazenuen ere, zegoen eguraldiak erakargarriegia bihurtu zuen.</p>	<p>NEGUA t</p> <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Aurretzen hasi behar duzula diote izarrek, gutxi barri diru-sarrerak murriztuko zaizkizu-eta. Zerbaiten bila zabilzala ez dago inongo dudarik; hala ere, topatzeko itxaropenik ba ete daukazu?</p>

mungia
OKINdegia

Algortan badaukagu Goizero lortzen dogu
artisaunen ogia obispoen guleria
izen eta jatorriz probatu bada edo ez
da "ogi mungia". dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA




denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin

1. Auzokoa, aldamenekoa. 2. Olariak. 3. Lapurdiko herria. Burdinbidea. 4. Hiri barruko errepideko tren. Ogi, hitz elkarketan. 5. Eite, itxura. Azkenekoa eta lehenengoa. Sufrea. 6. Ipar., zirikatua. 7. Oxigenoa. Metal estimatua. 8. Urrea. Zaldiak mugiarazteko interjekzioa. Bostehun. 9. Ebazpen. Gizon izena. 10. Intsektu nazkagarria. Gipuzkoako herria.

Goitik behera

1.Esku. Ukatzeko. 2. Gaueko argi. Batrazio ezaguna. 3. Zaraitzuko. 4. Nafarroako Bortziritako herria. Iridioa. 5. Berrogeita hamaika. Bigira, gaualdi. Iodoa. 6. Igarle. Mapa. 7. Laudorio, gorespen. 8. Momentu, lipar. Musika-partituren euskarria. 9. Ipotx, ñaño. Arabako alderdi politikoa. Musika nota. 10. Hutsa, desegokitasuna. Joaki da.

Soluzioak

V	A	I	A	V	I	R	H	O	Z
O	L	M	E	T	E	P	A	I	E
D	I	R	I	A	R	A	U	A	D
A	R	A	R	A	L	I	Z	O	A
A	U	A	T	A	K	I	Z	I	K
S	A	Z	E	T	E	G	I	T	E
T	O	A	B	I	N	B	R	A	T
V	N	E	R	E	T	R	A	A	S
A	N	A	K	O	N	O	Z	I	O
N	A	U	G	I	L	A	G	I	B

1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Taula honek hamaika beltzune ditu



OLATZ MENTXAKAK UTZITAKO ARGAZKIA

asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- Zornotzako semea da
- Politikan badu eskarmenturik
- Bertsolaritza irauli zuen

> Aurrekoaren erantzuna: Yasser Arafat

> Irabazlea: **Aitor Arrate (Berango) ***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

Argia astekariaren biru bilabeteko harpidetza doan



Freexkue liburua

www.argia.com

San Nikolas ikastolako haurrak kantari, 1972an

Konturatu barik aurrera doa denbora, eten barik. Horixe izango dute gogoan goiko argazkian agertzen direnak irudia ikusi eta gero; izan ere, honezkeroko hogeita hamar urtetik gora igaro dira. 1972-73 ikasturteko San Nikolas ikastolako haurrak dituzue. Artean ikastola askoz ere txikiagoa zen eta Bidebarri kalean zegoen. Han ez zegoen ekitaldietarako areto handirik eta horregatik ikuskizun guztiak Algortako Gran Cineman antolatzen zituzten. Argazkiko haurrak Gabonetako *Elurra mara-mara ari da* kanta abesten ari zirela jakin dugu guk. m

Ezkerretik eskuinera: Idoia Belasko, Aitor Arketa, Xabier Zalbidea, Olatz Mentxaka, Cristina Ikazuriaga, Itziar Batiz, Idoia Obieta, Meritxel Jimenez, Miren Sorne Zugadi.



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

ANNE IGARTEBURU > aurkezlea

“Lanbide honetan denek daukate zuri buruz iritzi bat”

Testua: **Jon Urresti**



Defini ezazu zeure burua berba bitan bakarrik. Alaia, bizia.
Zein animaliagaz zatoz bat? Pinpilinpauxak gustatzen zaizkit.
Zein liburu gustatuko litzaizuke idaztea?
Rosalia de Castro-ren poemak. Emakume sakona iruditzen zait, eta bere olerkiak hunkigarriak.
Eta zein filmean egingo zenuke protagonistaren papera?
El paciente inglés pelikulan Juliette Binoche-k egin zuena.
Historiako zein pertsona miresten duzu gehien?
Mozart. Bere obrek askotan lagundu didate, eta jenio bat zen!
Zure jakirik gogokoena. Arraina labean eta patata tortilla.
Aitortu dezakezun bizio bat.
Diskoak erostea. Pila bat erosten ditut! Azkenengoa? Manolo García-ren *Para que no se duerman mis sentidos*.
Oporretan joateko lekurik aproposena. Kantauri itsasoko kosta, oro har.
Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen? Zorrozkeria.
Zer janzten duzu lo egiteko? Pijamaren prakak eta kamiseta.
Ezin zaitezke bizi... Muskarik gabe, ezta maitasunik gabe ere.
Zer gordetzen duzu sakeletan? Ezer ez, gauza gutxi. Bueno, paperen bat.
Inoiz erosi duzun gauzarik bitxiena.
Koadro bat. Donostian bizi den margolari japoniar batena da. Bere egunkari-apuntea eta zirriborro liburu bat ere erosi nituen.
Zer berri gustatuko litzaizuke entzutea albistegi batean?
Gosearen amaiera.
Ohitura txarren bat... Pazientziarik eza.
...Eta sineskeriaren bat. Familian daukadan fedea.
Zertan gustatuko litzaizuke haragitzea?
Artista batean, edozein artista! Nire ustez, artistek pertsonen ariman eragiteko gaitasuna daukate, eta hori asko gustatzen zait.
Noiz egin zenuen negar azkenengoz? Atzo bertan.
Zure azken erokeria.
Ez esatea “ez” sarriagotan. Lanbide honetan, denek daukate zuri buruz iritzi bat. Horregatik, ahal duzun neurrian, “bai” esan behar duzu. m

OPARITU EUSKARAZ

- Liburuak, musika, jostailuak, informatika...
- Labetik irten berri diren produktuak
- Laster zuen postontzietan
- Eta INTERNETen ere bai:

www.Bizkaia.net/Kultura/Euskara/eu_euskara.htm

ARGITARATZAILEA:

LAGUNTZAILEA:

Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila

LABURREAN— Ille horia, begi urdin sakonak, 1'75 metroko altuera, sekulako gorpuzkera... Eskandinaviarra dirudi, baina ez: emakume dotore hau Durangaldekoa dugu. Anne Igarteburu (Elorrio, 1962) enpresa-kudeaketaz ahaztu zen (Deustun ikasi, eta AEBetan eta Frantzia masterrak egin zituen) telebista bere bizitzan agertu zenean; orduntxe hasi zen kamerak eta ikusleak liluratzeko. Arrasate Telebistan hasitako ibilbideak TVEra eroan du; tartean, ETBn eta Tele 5-n egin ditu geldialdi batzuk. Zazpi urte daramaz *Corazón de...* saioa aurkezten, unibertso arrosa basatian dagoen programarik adeitsuenetarikoa. Bere ahots eztsuagaz (“Hola, corazones” agurra ezagun egin du), pertsonaia ospetsuen nondik norakoak kontatzen dizkigu egunero, baina irailaren 10ean, Igor Yebra dantzari bilbotarragaz ezkondu zenean, Anne bera izan genuen bihotzeko aldizkariaren protagonista. Bost hizkuntza dakizki, soineko beltzak ditu gustuko, eta txikerra zenetik erlojuen bilduma egiten du; ama zenaren gauzak ere (helikoptero istripu batean hil zen) maitasun handiz gordetzen ditu.